

# Karkara

*karkara.eus*

 Orioko eta Aiako aldizkaria · 2015eko urriaren 30a · 366. zenbakia. 26. urtea



## Grabazio estudiotik, oholtzaratzera

Hitzekin biluztu da Olatz Zugasti. Barrura begira jarri eta barru-barruko sentimenduak kanporatu ditu, nola diskoan, hala elkarrizketan.

**8**

**Elkarrizketa**  
Ione Cisneros

**14**

**Erreportajea**  
Hondartzako draga

**26**

**Argazki erreportajea**  
Fashion Week

**31**

**Elkarrizketa**  
Esperientzia eskola

**2 GURPIL**

Baxoalde 2 - 3 • 20810 Orlio (Gipuzkoa)

Tf: 943 836 980 | www.2gurpil.com | bigurpil@hotmail.com

**Alustiza Autobusak**  
Alustiza Balmak S.L.

Autobus litera eta  
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 943 83 25 93 / 83 08 80 • Mungikorra: 656 78 30 01 • 656 78 29 99

**azkue**

Tf: 943 130 438

**azkue**

obrak  
proiektuak  
emehabilitazioak  
koordenak  
erakuntza zerbitzuak  
ITEak  
erakinen mantenua

**XS**

arkitektura

barja agirresarabe lapelagi  
henko-baita 6, behiea  
20600 zarautz

6 3 5 7 3 1 7 2 2  
9 4 3 1 3 4 3 5 8  
xs@xsarkitektura.com

**Orioko Herri Ikastola**

Guraso Kooperatiha

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net  
www.oriokoikastola.net

**NOAUA!ren KULTURALDIA 2015**  
Usurbilen azaroaren 6tik 15era

azaroak 6, OSTIOLA  
**KONTZERTUA**  
"N. Irizarra" 28.00etan 18:00an

azaroak 8, IGADEA  
**ZINEMA**  
PIKADERO  
19.00etan 18:00an

azaroak 12, OSTEGENA  
**HITZALDIA**  
"Argia" 18:00an 19.00etan 18:00an

azaroak 14, IARUNBATA  
**ANTZERKIA**  
"Arriak" 28.00etan 18:00an

azaroak 13, OSTIOLA  
**BERTSO-AFARIA**  
28.00etan 18:00an

azaroak 15, IGADEA  
**IBILALDIA**  
18.00etan 18:00an

azaroak 9tik 15era  
**ERAKUSKETA**  
"IATKI" Tebiba Larrea. 18.00etan

Sarrerak-entzutenak soilak: 18.00etan, Antzerkia, Liburutegia NoaUA.

**USURBILLEN**

noaUA

366

## Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

## Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.eus

## Editorea

KARKARA taldea  
kultur elkarte

## Erredaktore burua

Miriam Garcia

## Erredakzio taldea

Onintza Aiestaran,  
Olatz Artola,  
Iñigo Exposito,  
Jon Garate,  
Iñaki Iturain,  
Idurre Lizarralde,  
Elizabete Manterola  
eta Rikardo Uzkudun

## Publizitatea

Idurre Telleria

Ale honetako  
kolaboratzaileakAitor Arregi  
Eneko Balardi  
Ibai Esoain  
Libe Garmendia  
Eli Huegun  
Peru Iparragirre  
Olatz Olariaga

## Diseinua

Saioa Perona

## Banatzaileak

Rodolfo Jimenez (Orio)  
Eli Irureta (Aia)

## Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.200 aleKARKARAK ez du bere gain har-  
tzen aldizkarian adierazitako  
esanen edota iritzien erantzuz-  
kizunik. KARKARAN argitaratu-  
takoa berreman daiteke,  
osorik edo zatika, baldin eta  
iturria aipatzen bada.

TOKIKOM

## HASI BERTSOTAN

IBAIESOAIN (DOINUA: LURRAREN PEAN SAR NINDAITEKE)

Igogailuan gora zoaz,  
ispiluari irribarrez

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan, Andoain. 2015/10/11

1

Goizean goizo poligonotan  
nabil buelta eta buelta,  
dei batek hala aitortu zidan  
egingo dizut arreta;  
gutun azala itxi dut eta  
egin dixkat bi fereka,  
ate hotzen bat edukiko du  
inguruan lau paretia,  
beti badaukat curriculum bat  
norbaitentzako gordeta.

2

Langabetuak horixe baitu  
eguneroko pastela,  
azkenerako pentsatu ohi dut  
datorrena datorrela:  
lan duinen bat bilatu arte  
segi behar dut horrela.  
Ondo badakit lur azalean  
askotan egon naizela,  
ia gorantza egiten dedan  
igogailuan bezela.

3

Ta zoritxarrez askorena da  
horrelako miseria,  
askori zaio oso garesti  
eguneroko ogia,  
soldata osoa balitz ederki  
edo soldata erdia,  
gaurkoa ondo aterako da  
seguru naiz, alegia;  
ai ispilutxo ai ispilutxo  
esan zaidazu egia!

Esoain Andoaingo saioan. GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Publizitatea kontratatzeko:

Karkara  
688 859 682 (Idurre)  
publizitatea@karkara.com

karkara.eus

## LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala

Gipuzkoako  
Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK  
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

## Istripuaren zain...

Egunero dozenaka haur dira Anibarko portutik eta Ibaiondotik moilatik barrena ikastolara doazenak.

Kofradia eskoratu eta hesiz inguratu ostean, udalak pibote batzuk jarri zituen moilatik Leundaneko etxeraino modu seguruan pasa ahal izateko. Tamalez, norbaitek pibote horiek errotik moztu zituen eta orain paso segurua behar zuena arrisku-gunea da. Oinezkoentzako pasabidea autoentzako aparkalekua da gaur egun.

Ondorioz, moilatik barrena ikastolara edo ibai ertzeko pasealekura iritsi nahi duen edonork gune horretan errepide erditik pasa beste erremedioirik ez dauka, kontrako norabidean da tozen autoei aurre eginez.

Istripu bat izateko arriskua nabarmena da. Ez dakit zenbat haurrek pasa beharko duten handik zerbait larria gertatu arte, baina arriskua erreala da eta zerbait gerta daitekeela begi bista-koa da.

Denbora gehiago edo gutxiago pasako da, baina estatistika kontua da eta hauek ez dute hutsik egiten.

Nire eskaera egoera hau konpon dezaketen arduradunei zuzendua dago, neurriak orain hartzea haur bat kotxe azpian harrapatuta dagoenean ardurak eskatzen hastea baino hobea delako ustetan. Gero, alferrik izaten dira kontuak. ■ **Guraso bat.**

## DispertsiOFF!

2015eko urriak 23-25. Espainiara herriko preso politiko bat bisitatzerako joandako pertsona baten kronika:

2015/10/23

20:30 Amarako autobus geltokiaren ondoan Alacantera bere senide eta lagunak bisitatzerako doazenekin elkartu. Gidari boluntarioak diren bi pertsona gehi bisita egitera doazen beste bostek furgonetaz Alacanterantzko bidaia hasi.

21:30 Gasteizen bisita egitera doan beste pertsona batekin elkartu.

22:30 Gasteiztik Alacanterantz abiatu.

## Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, gure egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARA bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

## KARKARA eta Orioko Arraunketa Elkartearen elkarlanean

Aurreko hilabetean, arraunaren zerbaki berezia kaleratu genuen. 2014-2015 denboraldian Orioko Arraunketa Elkarteak egindako lana bildu genuen elkarriketa eta erreportajeetan.

Zerbaki berezi hori elkarlanean egin genuen KARKARAK eta Orioko Arraunketa Elkarteak.

Karkarak eskerrak eman nahi dizkio Orioko Arraunketa Elkarteari KARKARAK eskaini dezakeen horretan sinesteagatik eta gurekin batera produktu bat kaleratzeko apustua egiteagatik.

Hortaz, eskerrak eman nahi dizkio KARKARAKO lan taldeak Orioko Arraunketa Elkarteari.

2015/10/24

05:00 Alacanteko Villenan bisita izango dutenak utzi eta Alacante hiriko Fontcalent kartzelara doazenak Alacanterantz jarraitu.

06:00 Fontcalentera iritsi.

08:00 Kartzelara sartu.

08:40 Bisita hasi.

09:20 Bisita bukatu.

09:40 Villerantz habiatu.

10:40 Villenara iritsi eta egun osoz denbora pasa azkenengo bisita duen pertsonak bukatu arte.

19:45 Villenatik bueltan abiatu.

2015/10/25

00:00 Somosierran afaldu.

02:30 Gasteiza iritsi.

03:30 Donostiara iritsi.

Joan eta etorriko bidaiaren iraupena: 960 minutu -16 ordu-.

Bisitaren iraupena: 40 minutu.

Joan eta etorriko bidaia luzeran: 860km -etxetik gertuen dagoen kartzela: 20km-.

Joan eta etorriko bidaiaren kostua: 140 euro. ■ **Oriotar bat.**

## Goizeko 7:00etan aerobik egitera!

Karela kiroldegian goizeko 7:00etan step-aerobikerako taldea osatzeko jendea falta zaigu.

Klaseak 50 minutuko iraupena dute, eta astean hirutan izaten dira: asteartean, asteazkenetan eta ostiraletan. Txandaka aritzen gara aerobika eta stepa egiten; egun batean stepa eta beste aerobika.

Hiruhilabete honetan, jende faltagatik, ezin izan dugu taldea osatu. Guretzat izugarritzeko pena izan da, gustura joaten baikinen astean hirutan kiroldegira! Badira urte batzuk hori egiten genuela eta ez dugu ohiturarekin amaitu nahi.

Hortaz, bagaude taldetxo bat ordu horretan kirol hori egiteko interesarekin, jendea animatu nahi dugu goizean goiz step-aerobik egitera! Taldea osatuz gero egin baikenezake!

Urtarrilean hasiko da hurrengo hiruhilabetea eta ordurako osatu nahi-ko genuke taldea.

Izena eman nahi duenak Karela kiroldegira joan daiteke, edo, bestela, telefonoz deitu dezake 943 89 44 28 zenbakira.

Animatu zaituzte kirolaz gozatzera! Gure taldean nahi zaitugu! ■ **Ikastarora joan nahi duten zazpi lagun**

## ■ ZORIO TXARRAK!

### Tratu txarrak herriko katuei

**K**atuak hilda topatu zituzten urriaren 22an Orion, Arrantzale kalean. Goizaldean, eguna argitzerako, hainbat katu topatu zitezkeen kalean hilda.

Hasiera batean katuak pozoiarekin hil zituztela uste bazen ere, tirokatuta hil dituzte katuak.

Ezbeharraren urriaren erdialdean gertatu zen, eta, oraingoz, ez dakite nor izan zen zorigaitza sortu zuena.



## ■ JAIOTAKOAK

- Laida Urbietta Berriozabal, Orion, urriaren 21ean.
- Roman Tsirkina Tsirkina, Orion, urriaren 17an.
- Libe Olaizola Olasagasti, Orion, urriaren 10ean.
- Lur del Olmo Santxez, Orion, urriaren 6an.
- Izar Llona Rementeria, Orion, urriaren 4an.
- Elene eta Laida Kaperotxipi Uriel, Orion, irailaren 28an.
- Tudor Arkaitz Ostolaza Badea, Orion, irailaren 27an.

## ■ HILDAKOAK

- Inazio Azkue Etxeberria, Aia, urriaren 26a. 82 urte.
- Faustina Barjacoba Seguro, urriaren 25ean. 88 urte.
- M<sup>a</sup> Luz Arrizabalaga Seguro, Orio, urriaren 14a. 90 urte.
- Maria Aramendi Etxezarreta, Aia, irailaren 28a. 90 urte.
- Segundo Manterola Aldaz, Orio, irailaren 28a. 93 urte.
- Castor Arreseigor Arreseigor, Orio, irailaren 24a. 79 urte.

## ■ EZKONDUTAKOAK

- Solange Bermudez Ullman eta Jon Makazaga Urdangarin, Orion, urriaren 10ean.
- Adrian Ordoki Irazoki eta Leire Ugarte Arruti, Orion, urriaren 10ean.
- Estefania Sanles Mareke eta Iñigo Paniagua Gonzalez, Orion, urriaren 3an.
- Txomin Eizagirre San Sebastian eta Eneritz Mitxelena Fernandez de Gorostiza, Orion, urriaren 2an.
- Miren Zinkunegi Iruere eta Jon Amena-bar Seguro, Orion, irailaren 24ean.
- Eneko Galarraga Ibarburen eta Maria Elizegi Villegas, Orion, irailaren 19an.
- Erika Maria Isabel Sanmareul Turrado eta Aritz Aranguren Arriaga, Orion, irailaren 12an.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:  
**943 83 15 27**

Kinikiladenta - Uma arropa

**argine**

www.lesoniel.com/argine  
Tel: 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA  
UGARIEN TXARTELAREKIN

**ARISTERRAZU**  
jatetxea

Andatza auzoa AIA  
Tel. 943 83 45 21

**URANGA**  
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net  
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

**Seguros Bilbao**

Orioko ordezkaria

Santi Barranco  
Tel: 618581398  
Arantzale, 2 - 2<sup>a</sup> aldea  
20810 Orio (Gipuzkoa)

e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

**Sagasti LEIHOAK**

ROBERTO SAGASTI

Tel: 943 13 00 77 - Fax: 943 53 71 50  
sagasti@sagastileihoak.com  
Arantzale kalea, 65  
20810 Orio (Gipuzkoa)

**azkue**  
karrozeria

Ubegun industrialdea, 7  
20809 Aia-Orio  
Tf/fax: 943 83 51 86  
carroceriasazkue@hotmail.com



Kilometroetako buruhandiek urriaren 2an egin zuten afaria. KMK



Duela urtebete atera genuen Kilometroetako zenbaki berezia. KARKARA



Karkarako lan taldeak ohiko kolaboratzaileekin egindako afaria. KARKARA

# Zama arina da elkarrekin

“Erredakzioko atea beti izango ditugu irekita eta beti hartuko zaituztegu eskuzabalik”

**D**uela urtebete, urriko lehen igandearen bezperatan, telefonoa jo eta jo zuen Kilometroetako arduradunak eta nerbioak dantzan bai berak, bai *buruhandi* guzti-guztiek. Dena prest eduki arren, urduri zeuden, oso.

Aurtengoan bizilagunen herrian izan zen Ikastolen aldeko festa hilaren lehen igandean. Bezperatan, alde ederreko egoeran zeuden Orioko Kilometroetako antolatzaileak. Mahai baten bueltan, jana bapo eta edana asetzeko adina. Irribarez, festan.


Iaz hasperen zena, kar, kar, kar-a zen aurten. Ardurak ez izanda bestelako begirada batekin oroitzen zuten duela urte beteko eguna, baita ate joka zegoen *Gattunk* festa ere. Motxila hustua arinagoa da guztia.

KARKARAK ere zama ederra izan zuen data hauetan, *Erria txikota!* kilometroen zenbaki berezia kaleratu genuen, antolatzaileekin elkarlanean. Anbizio handiko proiektua zen, epe laburrean egin behar baikenuen aldizkaria, ohiko hilabetekaria alboratu gabe.

Elkarlanean ereindakoak, gerora, motxilatik zama kenduta, fruituak eman zituela ikusi genuen. Eta, distantzia hartuta oroitzen genuena positiboa besterik ez dela kontuan hartuta, pasa den hilabetean arrauna hizpide izango zuen aldizkaria egitera animatu ginen, hau ere OAErekin elkarlanean.

Haziak erein, eta hazi eta hazi egin nahi du KARKARAK. Hazkuntza horretarako giltzarri izan daitezkeen iritziak bildu genituen kilometro aurreko ostiralean, *dinosaurioak* elkartuta. Marmitakoa hustu, eta ideia berriz bete genuen eltzea. Eta, zuentzat guztiontzat ere erredakzioko atea beti izango ditugu irekita, KARKARA gu guztiok garelako, topa!

# Zer iruditzen zaizu Euskategia eraberritzea eta indartzea?



“Garaia dut euskara ikasten hasteko”

**E**uskaltegi berri baten falta genuen, hortaz, oso pozik nago nola euskaltea hala eskaintza berri duela.

Ikastera animatu naiz, garaia badelako. Pittin bat badakit eta zerbait ulertzen dut, baina hitz egin, ezer gutxi. 58 urte daramatzat Orion bizitzen; orain 60 urte daukat eta uste dut garaia dela ikasten hasteko.

Oso pozik nago eskolak jasotzen. Ezin da alderatu kultur etxeko espazio eta eskaintzarekin. Orain askoz ere gehiago ikasten ari naizela uste dut. Hau da, aldaketa bat eman du euskaltegiak eta hori gure emaitzetan islatzen da. Halaber, hasi besterik ez gara egin.

**Mercedes Dominguez**

“Euskara ez jakiteak lotsa ematen zidan”

**O**so pozik etortzen naiz euskaltegira, oso ondo pasatzen dugu hemen, giro aparta izaten dugu. Oso ondo gaude!

Nik euskara ikasteko beharra nuen, hortaz, oso pozik nago. Lehenago ez nuen izena eman Orioko Euskaltegian.

Gogoan dut txikitan euskara ikasten nengoela, Euskaltegian, hamabi urte nituela. Ez nuen ezer ere ez ulertzen, baina atea jo zuten eta estatu kolpea eman zutela esan zuten.

Orain berriz heldu diot ikasteari. Denbora dudalako, batetik; eta ez jakiteak lotsa ematen zidalako, bestetik. Pittin bat badakit, baina gehiago ikasi dezaket. Horretan nabil, gogotsu.

**Santi Lopez**

“Asko eskertzen da herrian bertan euskaltea izatea”

**L**ehen ere joaten nintzen euskaltegira, duela hamar urte. Zarautzera joan behar izaten nuen, horrek dakarren guztiarekin. Orain, herrian bertan daukagu, eta hori asko eskertzen da.

Lotsa ematen zidan Orion hamabost urte bizitzen egon eta euskara ez hitz egiteak. Ulertzen dut eta pixka bat hitz egin dezaket, baina lotsa sentitzen nuen.

Nire seme-alabekin, esaterako, euskaraz hitz egiten dut, hemen jaio baitira. Eta nik ere erraztasun hori hartu nahi dut, lotsa horrekin amaitu, Orioko gizartean gehiago integratzeko oso garrantzitsua iruditzen baitzait.

**Angelica Acosta**

**SUKIA**  
 Oinargi eta gero... berriz KOPA eta TOPAZI  
 - OLASKO EFREAK ERAMATEKO  
 - EOLINEKO MEMLIA  
 - EDUNKARIAK  
 - OGIA

**URAITZ**  
 jantzi-eragileak  
 Zuzendaria: Tjaco 043 03 10 97

**OREKA FISIOTERAPIA**  
 Tendinitisak  
 Lumbalgia  
 Artrosia  
 Zefaleak  
 Masaje terapeutikoa  
 Bentonak okupazioa  
 euskarazko terapia  
 interpretazioa  
**943 13 35 37**  
 Arbizuko kalea, 11. Solte

MAIUL ETA HELMUEZTAN JANTZIAK  
**ROSA**  
 GARBINE ARRILLAGA  
 ARITZAGA KALEA, 1 - TEL. 943 13 49 49  
 100% DESKONTU FAMILIA UGAJENTZAI

# “Gobernuan dauden alderdiak, EAJ eta PSE, harresi bat eraikitzen ari dira”

## Ione Cisneros Agirre

Ahal Duguko batzarkidea Gipuzkoako Batzar Nagusietan

Orain dela urte eta erdi hasi zitzaion aldatzen bizitza Ione Cisnerosi -Orio, 1970-. Diseinu industrialean lanean aritzetik, eta Orendainen bizitzetik, Zumarragako Ahal Duguren zirkulura joaten hasia erabaki zuen.

**TESTUA: RIKARDO UZKUDUN**

**ARGAZKIAK: KARKARA**

Bileren eta bileren ondoren, alderdi barruko primarioak irabazi, liberatu, hauteskundera aurkeztu eta, gaur egun, batzarkidea da Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Oriora etorri da bizitzera gainera, bi hilabete ez dela.

**100 egun igaro dira kargua hartu zenutenetik. Zer sentsazio dituzu?**

Hasieran onak, funtzionarioek izugarri lagundu ziguten, batzarkide berriak ezagutu nituen, eta pertsonalki ondo sentitu nintzen. Alderdi gisa, konplikatuak izan da. Kontzientzia gara, sei batzarkide izanda, gutxi garela, neurri batean. Gogoratu nahi nuke, PPK batzarkide bakarra duela, eta PSEk 9; eta EAE mailan, Euskadiko hirugarren alderdia garela bototetan.

Beraz, lortu duguna, gutxienez behintzat, zera dela uste dugu: hitz egiteko modua aldatzea. Eguneroko hizkeran, hiritasunaz hitz egiten da, parte-hartzeaz, gardentasunaz... eta zenbait politikariren ahotan entzun ezin zintezkeen hitzak entzuten dira. Horretan eragina izan dugula uste dugu. Kaleko jendearekin harreman zuzena dugu, edozeinek hartu dezake parte gure zirkuluetan, eta hori helarazten saiatzen gara etengabe. Zailena nahi genuena lortzea da, urte asko daramatzaten juntakideak daude, zirrikitu guztiak ezagutzen dituzte, eta oso zail jartzen dizkigute gauzak. Gobernua dauden alderdiak, EAJ eta PSE, harresi bat eraikitzen ari dira, eta gainontzeko alderdiei ezinezko zaigu kasik ekarpenak egitea.

**Orietar askok ondo dakite zure aita, Luis, zinegotzi izan zela**

**Orioko Udalean PSOEn izenean. Nola bizi izan duzu hori? Nola ikusten duzu PSOEn?**

PSOekin izandako nire harremana beti oso bizia izan da. Alderdi sozialistaren inguruko jende asko ezagutzen dut, eta horregatik, hain zuzen, ez nago PSOEn, eta Podemosen nago. Alderdi guztietan bezala, badago kaleko jendea, zinegotzi dabilena eta abar, balio handikoak direnak; onartu beharra dago, ordea, alderdi sozialista itxuragabetu egin dela, iparra galdu duela, eta eskuinera jo duela zeharo alderantziz behar lukeenean: bere oinarrietara jo, eta bere Pablo Iglesias aurkitu. Nire aitari dagokionez, bera beti izan da oso kritikoa militante izan den alderdiarekiko, eta gaur egun, urrutiratu ta dago.

**Hitz egin dezagun politika erreala. Zergen diru bilketa dela eta, datuak atera berri dira EAEn, eta espero zenaren azpitik bildu da, Gipuzkoan izan ezik.**

Lehengoa izan genuen komisioan azaldu zizkiguten kontuak, eta harrigarria da, lau urtean Gipuzkoan EH Bildu agintean egonda, hura bakarrik izan dela aurreikusitako diru bilketaren goitik egon dena. Kurioso da EAJk, Bizkaian agintean egonda, nola jarri dituen emaitza horiek bere lanaren ondorio balira bezala. Gainera, nola Gipuzkoan hain ondo joan diren gauzak, Aberastasun Handien gaineko zergakendua egin dute. Atzo, bertan, finantza komisioan, arau foral berriaren proposamena azaldu zigun Jabier Larrañaga zuzendariak: higiezinetan eta akzioetan, milioi bat euro baino gehiago dituenari, kalifikazio berri bat aplikatuko zaio





“Alderdi sozialistaren inguruko jende asko ezagutzen dut, eta horregatik, hain zuzen, ez nago PSOEn, eta Podemosen nago”

arrasera berri batekin. Orain arte hiru baremo erabiltzen ziren: balio katastrala, merkatukoa eta erosketakoa. Merkatukoa eta erosketakoa kendu egingo dituzte, eta katastrala bakarrik laga. Denok dakigu, balio katastrala etxebizitzaren balioaren oso azpitik dagoela. Neurri horrekin bakarrik, gertatuko dena da, orain arte miloi bat euroko langa igarotzen zuten askok ez igarotzea, eta zerga hori ordaindu beharrik ez izatea. Egia da, aurreko zerga errebisatu zitekeela, batez ere, zenbait enpresengan eragina zuelako, beren irabaziak berriberbitzen dituztenenei zergapetzen zitzaielako. Bale, hobekuntzak izan zitzakeen aurreko zergak, baina esatea 3 herrialdeen harmonizazioaren izenean, Gipuzkoako zerga kendu egin behar dela! Ez al litzateke hobea Araban eta Bizkaian Gipuzkoako zerga ezartzea?

EAJk eta esaten duena da, erreforma honekin, Gipuzkoako enpresa sarea indartuko dela, eta lanaren etekinak handituko direla. Beren ustez, etekin horietatik jasotzen denarekin, zuloa tapatuko da, espero den 1,3 miliotako zuloa. Kalkulu eta balantze ugariaren ondoren, esaten dute 62.000 € bakarrik galduko direla. Ikusiko dugu, hemendik urte beterra! Eta okerrera da alderdi sozialistak hori onartu egingo duela, aberatsen aldeko eta pobreen kontrako zerga hori.

#### **Hondakinen bilketa, errausketa...**

Batez ere, pentsatu behar dena da, adostasun bat bilatu behar dela. Profesional independenteak plan bat proposatu behar lukete, eta hiritarrek, datuekin, erabaki. Nahiz eta askok horrela uste, jendea ez da inozoa.



Atez atekoa, berez, ez da txarra. Arazoa da ez dela adostasunik egon, eta lehen zenbait tokitan ezarri zen bezala, orain kendu egin dutela. Badira elkarte batzuk, Greenpeace edo Zero Zabor adibidez, neurri batzuen alde edo kontra daudenak. Iraunkortasunaz hitz egin behar da, Europako hondakinen legeei buruz... baina, zalantzarik gabe, ondo birpentsatu behar da errauskailuarena. Arau bat dago, esaten duena 2020tatik aurrera errauskailuak desagertu egin beharko direla. Hori jakinda, errauskailu bat egiten 2016an hasia, Bizkaian bere gaitasunaren azpitik lanean ari den beste bat dagoela kontuan hartuz, zentzugabekoa da. Hondakinak gutxitu beste erremediorik ez dago.

#### **Zertan da Bidegi auzia?**

EH Bilduk eta Guk proposamen bat egin dugu ikerketa batzorde bat martxan jartzeko. PPK baiezkoa emango duela esan du, baina PSEk, nahiz eta pasa den legealdiaren bukaran baiezkoa emango zuela agindu, ez du orain beharrik ikusten. Guk, argitzea nahi dugu, dokumentu berri batzuk agertu dira-eta.

#### **Eta, bukatzeko, Orio?**

Orio oso leku egokia da bizitzeko, eta haurrekin bizitzeko. Txikia da, baina zerbitzu aldetik denetik dago. Pena, hondartzan egin zenak ematen dit: barra-mutur handiak, surfa egiten dudana aldutik, kofradia berriak eta abar.

## IRAKURLEEN GALDERAK

**P**odemos-en emaitzak EAEn, Estatukoekin konparatuz, batz-beste koaren azpitik izan dira nabarmen. Zein dira zure ustez alde honen zergatiak?

Emaitza onak izan ziren guretzat, hasteko. Ezker-eskuin ardatzetik interpretatzen badugu, OtiK hasi eta 3. indarra izatera iristea, bada zer bait euskal gizarte honetan, nolabait, kontserbadoreagoa den gizarte honetan. Bestetik, hemen eta Katalunian, abertzaletasunaren indarra dela eta, independentziazaileen edo ez independentziazaileen artean bereizten da gehiago. Podemosen kasuan, iruditzen zaigu, independentzia ez dela orain hartu beharreko bidea, nahiz eta beti erabakitze eskubidearen alde egon garen.

**Katalunia eta EHren erabakitze eskubidea defendatu izan duzue. Independentziaren aldeko jarrera hartuko balute, errespetatuko al zenukete?**

Jakina. Herriak esaten duena herriak esaten duena da. Jendea ez da leloa, eta erabaki bat hartzen badu zerbaitegatik izango da.

**EAE mailan, zertan ezberdintzen da Podemos beste alderdiengandik?**

Lehen esan dudana bezala, hemen alderdi independentziazaileak daude, eta independentziaren kontrakoak. Gu, beste garai batzuetan iritsi gara, ET Ak hiltzeari laga dio, eta Guk ez dugu beste batzuek gainean duten motxila. Hori Batzar Nagusietan nabarmena da, EH Bilduri askotan leporatzen diote EA Jk edo PSEk beren iragana. Eta gu zertan gara desberdinak? Batetik, politika behetik gora egitea bilatzen dugu, gardentasuna eskatzen dugu, pertsonak hartzen ditugu ardatz, burokrazia eta liskarren politika zaharritua ahaztu eta adostasunean eta elkarrizketan oinarritutako politika bat nahi dugu. Banku eta abarren interesetan ez pentsatu, eta denon parte-hartzean sinisten dugu. Horregatik ez ditugu donazio handiak onartzen.

**Arnaldo Otegi, Rafa Diez, eta beste hainbat preso politiko aske geratzearekin bat al zatozte?**

Pasa den larunbateko manifestazioa dela eta esan beharra dago, ez ginela alderdi gisa joan. Ez dakit nor izan zen antolatzailea zehazki, baina politizatua izan zen. Ahal Duguko lagunak pertsonalki joan ziren eta ez alderdiaren ordezkari gisa. Argi dagoena da, norbait kartzelan badago, baina delituri egin ez badu, ez lukeela kartzelan egon beharko.



Florentino Loidi Iturzaeta zutik ageri da automobilean, buruan txapela duela. PEIO ETXEBESTE

# Loidi, Errenteriako alkate oriotarra

## Oroimenaren kutxa



rain hiru urte, 2012ko irailean, Errenteriako Udalak omenaldia egin zien 1936ko uztailaren 18an, faxistek kolpea jo eta gerra hasi zenean, Errenterian alkate eta zinegotzi zirenei.

Omenaldi-ekitaldian gizon haien familiarrek parte hartu zuten. Haietako bat Serapio Mendarteren alaba zen, 1936an faxistek tiroz hildako zinegotziarena. Miren Mendartek honako hitzak erabili zituen omenaldian:

*Bizitza aurrera doa eta urak bere onera etortzen dira. Oinaze zaharrak ez dira ahazten, baina ezagutu ditugu garai hobekak eta guretzat eta batez ere gure ondorengoentzat garai hobegoen itxaropenak pozten eta pizten gaitu. Izan gaitetzela denok ideiak eta gehingoaren erabakiak errespetatzeko gai. Ez bada gure gustukoa ateratzen, itxaron, gogor lan egin gure ideien alde, baina ez dadila inoiz inor berriro herriaren nahia- ren aurka altxatu. Egin dezagun etorkizun eder bat denon artean eta bakean.*

Ekitaldian 1936ko beste zinegotzi baten alaba ere bazegoen, Florentino Loidi Iturzaetaren alaba Angela Loidi Bizkarrondo, 2016ko abuztuan 100 urte beteko dituen emakumea. Florentino Orion jaioa zen, gaztetan familiarekin Errenteriarra joana. 1936an hango alkate-ordeazen, EAJko kidea. Faxistak irailaren 13an herrian sartu aurretik, egun batzuk lehenago, ihes egin zuen Errenteriatik eta Bilbo aldera abiatu. Bidean Orion gelditu zen, bere familiarrekin egoteko, aurrera segitu aurretik. Bilbon zirela, berriro osatu zuten Errente-

riako udala eta Florentino Loidi izendatu zuten alkate. Gero, frontea guztiz erori zenean, EAJk Santoñan errendizio ituna sinatu zuenean, Frantziara alde egin zuen Loidik itsasoz, eta handik Kanbora. Errenteriako agintari berriek ondasun guztiak konfiskatu zituzten Loidiri: fabrika, etxea...

2012ko apirilaren 14an, II. Errepublika ezarri zeneko 81. urteurrenean, Errenteriako Udalak mozio bat onartu zuen, udaletxeko partidu guztiek adostuta: Bildu, EAJ, PSE, PP eta Errenteriako Ezkerrak. Hauxe zioen mozioak:

*Udalbatzak gogorarazi nahi die errenteriarrei orduko Udalak legezketasuna defendatu zuela historiara askatasunaren ukatzaile gisa pasa direnen aurrean. Horregatik orduko alkate, zinegotzi eta funtzionarioen memoria berreskuratu nahi du, frankismoarekin moztuta geratu zen demokrazia-aldia- ren azken kate-maila.*

Eta ondoko erabakia hartu zuten:

1. Geure egiten dugu Errenteriako Udalean azken korporazio errepublikanoak askatasunetikiko zeukan konpromisoa.

2. Udal honek, era berean, errekonozitzen du frankistek kargutik kendu zituzten 35 udal funtzionarioen lana. 3. Udal honek konpromisoa hartzen du pertsona horien guztien oroime- nez ekitaldi bat egiteko.

Datorren urtean, 2016ko irailean, 80 urte beteko dira tropa faxistak Orion sartu eta Udala desegin zutenetik. Ez dakit gure herrian Errenterian egindakoaren antzeko ezer egingo ote den. Ez litzateke ideia txarra. Nik bide horretan pausotxo bat emango dut: Orion 1936an, alkate eta zinegotzi izandako 9 gizonen zerrenda ekarriko dut hona. Hauek ziren: Juan Erzilla, Ramon Loidi, Domingo Karrera, Esteban Azkue, Jose Maria Arrillaga, Ignacio Manterola, Ramon Salsamendi, Juan Jose Iturain eta Ramon Uranga.

**ANOBGA TXIBI S.L**  
**KRISTALDEGIA**  
 · komertzial instalazioak · beira bikoitza  
 · segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristalluak  
 · ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

*eduzitegia*  
**ANTILLA**  
*juvelieria*

Abeslari kalea, 2 - TEL. 943 83 23 00

**LUXARBE**  
*igeltzeria*

Igeltzeritza orokorra, denotarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe.

Lan txukuna eta merkea.

Tfnoak: 943 33 59 00

**Portu**  
**ERRETEGIA**

Santo Erreka Auzoa, 30  
 943 89 40 04  
 20809 AIA-ORIO

*bestela, beraz, ez duzu  
 ezin duzue erabaki*

**EKILORE GARBIKETAK**

626417841  
 ekilore@outlook.es

**Nahikari**

HAIKUR DENDA

Aranzale kalea, 35  
 20100 - Oria  
 Tfno: 943 83 36 30  
 www.nahikari.es

**Zaragueta**  
 Herri Eskola Orto

telefonoa: 943 89 40 52  
 e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

**ASADOR XIXARIO**

Erren Gastero Kalea, 2  
 Tel. 943 83 00 10

**Joana Murgiondo**  
 Asegurari-agerpenlea

**ASEGIURUA**

Abeslari, 4 - 2. esk.  
 Tfnoa: 943 13 46 07

**PATXI OLIDEN**

Hemengo heragia.  
 Etxeko produkturak: tripa, adak, txokolate, bariz, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

**PERTSIANAK**

Aluminio, PVC  
 Venezianak  
 Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

Maider Arrillaga Sarasola - 136. Kol. zenb.  
 Arrantzale 63 - 20910 - Orio - Gipuzkoa  
 Tel. 943 575 361

**oinarri**  
 PODOLOGIA ZENTROA

**Zarautz**  
 Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa  
 > Hileta zerbitzu orokorrak  
 > Zerbitzu iraunkorra

**Harrespil**  
 Hilerri Zerbitzuak

Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

## Lekuz kanpo



Peru Iparragirre

***Eta hara non, parez pare, AHTaren tunel baten lanak ikus genitzakeen. Mendiaren orlegian zulo gris bat***

Zinbestekoa da momentu batez gelditzea eta hausnartzea bizi duguna beste modu batera ikusteko. Argi eta garbi ikusi nuen hori Gerard Ortín artistak prestatutako *Trabeska* izeneko mendi-ibilaldi, eskuhartze artistiko eta performacean. LaPublika esparru publikoari buruzko arte-ikerketarako laborategiak antolatu zuen ekimen hau.

Udazken igande horretan mendian ibilaldi bat baino zer bait gehiago egin genuen.

Autobusean iritsi ginen Betsaidera, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia elkartzen diren mendira. Infusio bero bat hartu eta antolatzaileei jaramon eginez isilik sartu ginen basoan barrena, pistatik kanpo. Ibilaldi osoa isilik eman genuen eta sakelako telefonoa eta gainontzeko gauzak autobusean utzi genituen. Zuhaitz eta sasi artean nola edo hala aurrera egin genuen tarte batez eta halako batean zelai batera iritsi ginen. Gelditu eta arnasa hartu genuen eta gure begiek ere, gure zentzuek, lasaitua hartu zuten, begirada altxa genezakeen. Eta hara non, parez pare, AHTaren tunel baten lanak ikus genitzakeen.

Mendiaren orlegian zulo gris bat. Ibilbidea jarraitu genuen, berriro basoan murgilduz. Ekialderantz jarraitzen ari ginen marra zuzenak errepide batekin egin zuen topo eta aurrean mendi zatitu bat genuen. Errepidetik jarraitu genuen bidea. Oraindik isilik, oinak berriro lur artifizialki laura ohitzen ari zitzaizkigularik koba baterantz gidatu gintuzten. Meditaziorako gisako musika jarri zuten eta minutuak, iluntasunean, hausnarrean. Halako batean, trenaren soina ateratu zen bailetatik, AHTa, gero eta ozenago eta dena isildu zen. Kobatik ateratu eta autobusean sartu ginen. Musika jarria zegoen – eta oraindik isilik – hautsitako paisaiak jabetzen ginelarik egin genuen bueltako bidea. Autopista, tunel, fabrika, harrobi eta abarrak inoiz baino argiago ikusi genituen, inoiz baino lekuz kanpokoago.



Miriam Garcia

## *Bejondeizuela gaztek!*

Leherdi kanpotik eta erdi barrutik bizi ditut aurten Gazte Festak. Ez naiz beste urteetan bezain barruan egon, ezta erabat kanpoan ere. Hainbat faktore izan dira nire inplikazio maila txikitu dutenak, baina hori beste kontu bat da.

Oraingoan herriko gazteen lana go-raipatzera nator. Izan ere, bileratara joan eta azkenaldian huts eta ilun sentitzen nuen gaztetxea jende berriz beteta ikusteak barrenak mugitu dizkit. Barrenak hainbat gauzek mugitu dizkidate.

Orain arte horrelako festarik antolatuz ez zuten gazteek –asko ez nituen ezagutu ere egiten, urte askotarako– erakutsi duten gogoak, adibidez. Ez dira gutxi izan, eta hori fundamentua!

Beteranoek ere ez dute gutxiago merezi. Beste urteetan topera aritutakoak, berriz ere, martxan ikusteak asko poztu ninduen. Galdutakoa berreskuratzeke gogoa zegoela ikusten zen.

Parte-hartzea ere txalotzekoa izan zen. Aitortu beharra daukat banuela beldur pixka bat, baina paella lehiaketaren egunean plazan sortu genuen lan-ranja koloreko mareak segituan uxatu zituen nire beldurrak.

Kixkurne ere oso dotore zegoen plazan zintzilik. Beste mila gauza ere esango nituzke, baina ez dut tokirik.

Orain, egindako lan guztia txalotu eta hurrengo urteko Gazte Festak aurtengoak bezain onak edo hobeak izatea desiratzea –eta horretarako lan egitea– besterik ez zaigu geratzen.

Bejondeizuela gaztek!



Arenas Aizpurua S.L enpresa, *Xuain* kokatuta dagoena . KARKARA

# Ibaiko draga lanak geldituta, momentuz

Eusko Jaurlaritzak ez dio berritu Arenas Aizpurua S.Lri 1999tik zuen baimena. **Errekurtsoa aurkeztu du enpresak**, baina epaia eman arte ezingo du jarduerarekin jarraitu. Dragatze lana hondartzako aldaketen eragileetako bat izan daiteke, EHUko ikerketa baten arabera.

## TESTUA: KARKARA

## ARGAZKIAK: KARKARA, MINISTERITZA, EJETA COSTAS

**A**renas Aizpuru S.L dragatze enpresari duela 15 urtetik zuen lizentzia ez zaio berritu. 2014ko uztailean Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren zuzendariak enpresak egindako eskaera ukatu zuen. Eskaera horretan, Aizpuruak 1999tik zuen kontzesioaren luzapena eskatzen zuen. Eusko Jaurlaritzak eskaera ukatu zuen.

Arenas Aizpuruak errekurtsioa jarri du, eta epaia erabaki bitartean kontzesioa ez emateko administrazio-egintza etetea eskatu zuen, hau da, dragatzen jarraitzeko baimena eskatu zuen. Auzitegi Nagusiak eskaera atzera bota du, eta autoa irmoa da. Beraz, gaia erabakitzen duen sententzia eman bitartean enpresak ezingo du dragatzen jarraitu.

**Draga, hondarraren egoeraren eragile posiblea**

2012an Orioko hondartzetako hondarraren azterketa egin zuten EHUko Topografiako ikasle Nerea Argotek eta Jon Azpirozek. Azterketa horretan hondar aleen tamaina handitzea –1988an 275 mikrakoa zen eta 2012an 700ekoa– eta hondartza beraren aldaketa bi faktore nagusik eragin zeza ketela zioten.

Batetik, kanpoko barra muturrak korronteak eta olatuen norabidea aldatu duela zioten. Lehen hondartzaren eskuineko harroketan hondar gehiago pilatzen zela, eta orain, aldeantiz gertatzen dela ikusi zuten.


Bestetik, kanpoko barraren inguruan egiten diren dragatze lanak beste arrazoi bat izan zitekeela zioten. Azterketaren arabera, dragatzean hondar fina eramaten dutenez, ale lodiak soilik geratzen dira hondartzan, eta hori izan daiteke urertzean aldapa handia agertzearen arrazoa.

Hondartzako hondarraren egoerak herritarrak kezkatu ditu azken hamarkadan. Herri Natur Taldeak eta Orioko Surf Taldeak hondartzaren egoera aztertzekeo beharra askotan azaldu dute, eta dragatze lanak behar ez ziren lekuan egiten zirela salatu dute.

**1979tik dragatzen**

60 urte inguru pasa dira Arenas Aizpuru lanean hasi zeneetik. Ortzaika auzoan zuten hondartegia hasieran, 1978an *Xuain* moila egin zuten arte. 1982an Espainiako Gobernutik Eusko Jaurlaritzara pasa zen dragaren kompetentzia eta 1999an Eusko Jaurlaritzako Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak Orioko portuko lur sail bat okupatzeko baimena eman zion Aizpuruari. Lur sail horiek hondarraren manipulaziorako eta morteroa egiteko erabiliko zirela zioen kontzesioak. Lurrak okupatzeko baimena 15 urtetakoa zen kontzesioaren arabera, eta 5 urtetako 3 luzapen egiteko aukera ematen zuen.

2014ko martxoan, baimena amaitu baino lau hilabete lehenago, lehen luzapena eskatu zuen Aizpuruak. Urte horietan *bi alderdietako inoren salaketarik eta jardueran ez beharrik*ez zela gertatu azpimarratu zuen enpresak. Uztailean, luzapena ukatu zion Garraio Azpiegituren zuzendariak.



Orioko itsasadarra. ITSASERTZEKO MINISTERIOA ETA PORTU ZUZENDARITZA



Orioko Antilla hondartzako hondarra. KARKARA

“EHUko ikasleen azterketak dio hondartzaren aldaketa eragin duten faktore nagusiak draga eta kanpoko barra izan daitezkeela”

“Autoaren arabera, sententzia eman bitartean enpresak ezin du dragatzen jarraitu”



Hondartzaren bilakera: 1983, 1997 eta 2015. SUSTAPEN MINISTERITZA ETA KARKARA

### Eusko Jaurlaritzaren arrazoiak

Bi dira Administrazioak kontzesioa ez luzatzeko ematen dituen arrazoi nagusiak, Garraio Zuzendaritzak emandako dokumentuaren arabera. Batetik, hondar aleen tamaina eta itsasertzeko aldapa aipatzen dira ebazpenean: *Gipuzkoako Itsasertzeko Zerbitzuak bidalitako idatzietan, azken lau urteetan Antillako hondartzako hondar aleen tamaina handitzea eta marearteko zonako malda handitzea salatzen da*. Epaia eman bitartean dragatzen jarraitzeko baimena ukatzen duen autoan Itsasertzeko Ministerioaren –Costas– txostenak aipatzen dira. Horiek diotenez, Arenas Aizpuruak denez inguruan dragatze eta erauzketa lanak egiten dituen bakarra, azken urteetako kalteen eragilea bera izan daiteke.

Bigarrenik, Aizpuruak Tasen Legearen arabera Gipuzkoako Portu Zerbitzuak egindako fakturazioaren aurka jarritako gorako errekurtsioak aipatzen ditu.

Horrez gain, beste bi gai aipatzen dira Auzitegi Nagusiaren autoan. Batetik, jarduera *baimendutako portu-eremutik kanpo* egiten dela salatzen da. 15. orrialdeko lehen argazkian itsasertzeta eta portu eremuak banatzen dituen lerroa ikusten da. Lerro horretatik ibaialderra portu eremua izango litzateke eta itsasaldera, berriz, kostalde eremua. 1999ko kontzesioaren arabera, Aizpuruak ibaian aritzeko baimena du, eta ez itsasertzean.

Bestetik, Kostaldee Buruzko Legea aipatzen du autoak; 63.2 artikulua honela dio: *eraikuntzarako agregakinen erauzketa debekatua dago, hondartzak sortu eta birsortzeko bada izan ezik*. Horrez gain, *ateratako hondarra saltzea debekatuta* dagoela azpimarratzen du administrazioak autoan.

Azken hori azpimarratzen du Almodena Ruiz de Angulok, Eusko Jaurlaritzako Ingurumena eta Lurralde Politika saileko Garraio Azpiegituren zuzendariak. *Hondarra baliabide naturala eta ondare mugatua da, eta Kostaldeen legeak 1988tik dio ezin dela atera eta saldu*. Hori da, Ruiz de Anguloren esanetan, neurriarekin ekidin nahi dutena, Eusko Jaurlaritzaren eginkizuna baita ingurumena zaintzea. *Hondarra kendu eta berriz jartzen ez bada, hondartzek atzera egiten dute*.

Eusko Jaurlaritzak bere jarduera birmoldatzeko proposamena egin dio Aizpuruari: ibai askok behar dute draga, ontziak bertatik ibil daitezen, *baina garrantzitsua da ateratako hondarra beharrezkoa den beste leku batean botatzea, hondar hori ekosistematik irten ez dadin*.

Draga hondartzaren aldaketaren eragilea den galdetzean ez dakiela dio Ruiz de Angulok, *ziurrenik arrazoi bat baino gehiago daude, eta azterketa bat egin behar da*.

### Sententziaren zain

Kontzesioan aurreikusten zen lehen luzapena eskatu zutela, eta ukatu egin zitzaizela dio Aizpuruako arduradunak. *Jarduera uztea eta instalazioak kentzea eskatu ziguten*. Erabaki hori errekurritu genuen, *bide administratibotik lehenengo eta judizialek gero*.

Auzitegi nagusiaren ebazpen judizialak, dragarekin jarraitzen utzi ez arren, sententzia eman arte instalazioak okupatzen jarraitzeko baimena ematen diola azpimarratu du. Azkenik, auzitegiak sententzia laster emango duela dio, eta orduan jakingo dutela dragatze lanak berekin daitezken edo ez.



## OSPAKIZUNA



## Elkarteen arteko senidetasuna

Urriaren 24an, igandearekin, Orioko Aldapa elkarteak eta Iruñeako Peña Aldapak anaitasun-festa egin zuten Orion. 1997an elkartu ziren lehen aldiz, eta ordutik, ohiturari eutsi diote. Goizean goiz elkartu ziren, eta hamaiketako egin ostean, herri kirolean ibili ziren bi elkarteetako kideak. Eguerdian poteatu eta gero Boga-Bogan bazkaldu zuten guztiek. Estrapalucio txarangak alaitu dagoeneko animatuta zegoen giroa.

## HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Inklusibotasunak segurua izan behar du; haur bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartu behar dira”

**Alicia Figueroa**, Kirol Egokituen Federazioa, Berrian, urriaren 16an.

“Orioko Surf Elkartearen esaterako heldu gehienak surf-lariak dira, baina gazteok bodyboardean murgiltzen hasi gara. Zubizarreta eta ni sartzen gara ia egunero uretara, eta gazteagoak ere animatzen hasi dira”

**Mikel Atxega**, bodyboardlaria, Urola Kostako Hjitzan, urriaren 16an.

**Gabon**  
TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitartekoak

943 83 06 09

**GARMENDIA**  
INMOBILIARIA - AHOLKUZARITZA - ABEZTURIAN

Ibai Ono, 1  
Tel.: 943 834 486 - Fax: 943 132 941

**HAIZE BERRI**  
taberna-jakintza-kafetegia

Plater konbinatuak, bokorak, harribugastak, txokorak, egurreko menuak...

estiralesten plater poteak

eta etxerri eramateko zerbitzuak

**943 831 623**  
Orioko Kale Nagusia, 11. 1. planta

**ITZALA**  
kafetegia-jakintza

tel. 943 83 12 59

**UTZIAR**  
kirolak

Tel. 943 83 31 03

**KAXAIO**  
PLADURRA ETA IGEITSUA

Konponketa eta berrikuntza lanak pladurra eta igeitsuarekin

4josemaria@gmail.com  
656 777 574

**KOLON TXIKI**  
ularrisagria-jakintza

Herrilko Erparantzeta, 4  
ORIO  
Tel. 943 83 00 44

**kutixi**  
kafetegia  
GOSARI GONDAK

Artzaga 8, 20810 Oloro  
Tel. 943 13 15 11

**INDO**  
Garraio frigorifikoa  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagune, 4  
Tel. 943 894 024  
Fax. 943 130 144  
20809 AIA - ORIO





**AIRDATZA modas**  
Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO


**TAILER MEKANIKOA AUTO LAN**



Pelotari 5, Orio  
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko  
**Gertuko Tailerra**

tel/fax: 943 89 00 69  
Bokasia kalea, 4. 20.000 ZARAUZ



**URBIDE**

ITURGINTZA\_BEROGINTZA  
GASA\_BAINU ERAKUSKETA

**arkaitz taberna**  
orio

- Ogitaratekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin  
Giro ezin hobea

**abeslari kalea 6 - 943 831 657**

Ille apandegia  
**MARIJO**



Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behe  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

**MENDIZABAL**  
**ARROZTEGIA**

Nearriko arraiak  
eta ogorlarrak

943 831 175 Altzari bidean  
645 708 491 Bati-Arri etxean  
mendizabal.net 20810 Ato-Orio



**mauka**

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: 943 572083 INES ASEÑO  
FAX: 943 571190 IBAI ONDGI 13  
i.aseño@futura.es 20810 ORIO

www.opxitecnificacio.es

**ARRAUNETXE**

PACK (guztizenez 6 hitabete)	PREZIOAK
Prestatutza personalizatua	40,00 € / hitaba
Dinamiko Eskertza Testa	61,00 €
Eskertza Test Aurreratua (Laktosarekin)	85,00 €
Intuitzio aholkularitza eta jarraitzea	31,00 € / hitaba

**ANNA'S**  
**KEBAB**  
**ORIO**



ETXETA  
gramatuko  
zerbitzua

**943 100 306**

**karkara**.eus

**Eskaintza berria**  
Guztiak  
**Eskaria**



**ROSANA ARRUTI**  
GIZAKI ESTUDIOT



Tel: 943 83 58 45  
fotorosanaarruti@gmail.com



**sinergia** FISIOTERAPIA  
IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM  
TF.: 943 130 577 685 718 595

**LESIOAK:** SIKURDURAK, TENDINITISAK, ZAJNTIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

**TRATAMENDUAK:** TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)



## Ilara luzeak sinadurak lortzeko

**U**rriaren 21a, asteazkena. Jende multzo handia bildu zen arratsaldean Eusko Gudari kalean, haurrak eta gaztetxoak gehienak. Urduritasuna eta elastiko txuri-urdinak ziren nagusi Kutxabanken, Orioko egoitzaren kanpoaldean.

Barruan, Iñigo Martinez eta Yuri Berchiche, Realeko jokalaria, mahaiaren aurrean eserita, argazkiak, baloiak eta kamisetak sinatzen. Irribarreak bertaratutako ena aurpegieta eta argazkien flashak han eta hemen. Arratsalde polita igaro zuten herriko realzaleek beren gustuko jokalariekin.

**KARKARA**

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk eka-ritakoa dela jarrita.

# “Koherentziak aurkitu nahian ideiak ordenatzen ditut idaztean”

## Olatz Zugasti

Musikaria

Aurrerapen kantua labetik atera berri du Olatz Zugastik -Hernani, 1965- eta bosgarren diskoa ere berehala kaleratuko du, azaroan. Barru-barrutik idatzitakoak musikatu ditu, autokritikatik hasi eta Euskal Herriak hartutako norabidearaino. Bilbon aurkeztuko du diskoa, azaroaren 21ean.

### TESTUA: O. ARTOLA

#### ARGAZKIAK: KARKARA ETA CONNY BEYREUTHER

Familiartean jo zituen gitarrarekin lehen notak. Harparen soinuak liluratuta, gitarratik harpara jo zuen. Eta saltoka beharrean, pausoka joan da musikaren ibilbidea osatzen.

Orain, harpa bidelagun eta lau mutil gazteren konpainian, familia ederra osatu du diskoa atera eta oholtzara igotzeko pausoa emateko.

#### Harpa 1981ean ezagutu zenuen...

Ordurako Hernanin nire tarraxkadak egiten nenbilen, batekin eta bestearekin. Irlandako musika zeltiar ugari entzuten nuen, eta Bingen Zupiriak deitu zidan talde bat osatzeko asmotan. Ildo horretako taldea osatzeko baten batek baxua jotzen ikasi beharko lukeela esan zuen, eta beste batek harpa. Harparena burutik kendu ezinik gelditu nintzen.

Benitoren Altabizkar eta Itzaltzuko bardoari diskoan hartu nuen parte; orduan, harpa zuen musikari bat ezagutu

nuen eta utzi egin zidan, lardaskatu. Asko gustatu zitzaidan. Benitok Alan Stivell britaniarraren diskoa utzi zidan, eta liluratu egin ninduen, ikasi beharra sentitu nuen. Kontserbatorioan eman nuen izena.

#### Badira kontserbatorioan instrumentua jotzen irakasten bai, baina instrumentua askapen-bide moduan ulertaritzen laguntzen ez dizutela pentsatzen dutenak.

Niri herri musika gustatzen zitzaidan; hortaz, paraleloki, autodidakta moduan ikasi nuen. Akademikoak gauza objektibo batzuk ematen dizkizu, ikasi beharreko teoriak, klasiko klabeen interpretatzeko moduak eta abar; baina, musika popularraren zera hori ikasteko beste bide batzuetara jo behar... eta hori norberaren bilaketa edo jarduera da.

#### Bakarlari gisa lau disko kaleratu dituzu eta bosgarrena bidean da. Noiz sentitzen du batek diskoa atera behar duela?

Lehen diskoa egitera Benitok animatu ninduen. Eginda nituen kantak erakutsi nizkion, eta berak esan zidan hor dis-





ko bat zegoela. Izan ere, lehendabizi kantuak egiteko joera dago: zerbait idatzi, doinua jarri... eta, gero, bilduma hori kaleratzea erabakitzen duzu.

**Diskoa fabrian dago dagoeneko, eta azaroan kaleratuko da. Itxaronaldia luzea egiten ari al zaizu?**

Egindako horri punta ateratzen hasi naiz, hau horrela egin izan banu pentsatzen. Atzo, zuzeneko entseatzaren aritu ginen eta gauza batzuk aldatu genituen.

**Zuzenekoek orrazteko malgutasun ematen dute, ezta?**

Taldearekin ez da denbora asko hasi naizela, hortaz, kantuak janzte horretan, gauza batzuetan asmatu dugu eta beste batzuetan ez. Zuzenekoek horiek zuzentzeko aukera ematen dute.

**Ez zara hasiberria, baina bakarlari moduan taulara apenas igo zara...**

Lehen diskoa kaleratutakoan kontzertu gutxi batzuk eman nituen. Benitok garai hartan agenda kontzertuz josia zuen, eta datak kointziditu egiten zuten. Nik argi nuen lehentasuna berak zuela, beraz, pauso bat atzera egin nuen. Eta erabaki horren atzean zeuden mamu guztiak...

**Behin mamuak uxatuta...**

Pauso bat aurrera. Hala ere, ez da gutxietsi egiten dudalako kolaboratzaile papera. Askok diote Benitoren itzalean nagoela. Nik ez dut horrela ikusten, Benitoren musika bera da erdigunea eta ni bere musikaria naiz, ohore handiarekin; bere beharrei, soinuari ahalik eta ongien erantzutea niretzat gauza polita da, aberasgarria. Pauso hau ez dut eman itzaletik lehen planora ateratzeko, nituen kantuei aukera bat emateko garaia heldu dela sentitu dut, naturalki.

**Ezberdina izango da bakarlari moduan taularatzea...**

Zeharo. Aurrez aurre zu izatea, zuregan egotea erantzukizun guztia. Hain juxtu horiek izan dira arrazoiak urte haue- tan guztietan pausoa ez emateko. Baita ere, eta bihotza

“Erabakiak hartu egiten dira, nik ez diot erabakitzeko eskubidea eskatu behar mendean hartu nauenari”



eskuetan diot, Benito horrenbeste miretsi dudana artista izanik, erabateko komunikatzailea eszenan, hainbeste urte eta gero horrenbesteko jendetza ekarritz... arrakasta horrek ni ere atzera eramaten ninduen taularatzeko garaian.

Orain hutsetik hasten naiz eta gauzak irabazi egin behar ditut. Jada ez ditut beldur horiek, ez baitira bi kasuak konparagarria; hortaz, kantuak zuzenekoetan urratuko ditut, baita neroni ere, eta ikusiko dugu.

#### **Bizi eta sentitzen duzuna ardatz hartuta sortzen al duzu?**

Egonezinek eramaten zaituzte idaztera, gehienetan, nire kasuan behinik behin. Idaztea terapia da. Pixka bat psikologoarena egiten duzu zeure buruarekin. Zure koherentziak aurkitu nahian ideiak ordenatzen dituzu idaztean. Gero, hitzei musika ematen zaie, jantzi egiten dira.

#### **Entzuleari, ordea, berak bizitakoaren baitan eragingo dio kantuak...**

Kantu bat ez da soilik zurea. Zuk egin duzu baina komunikazioa berea du –edo behar du–, kanpora begira zer eragiten duen, zerbait eragiten badu...

#### **Zuretzat garrantzitsua da eragitea.**

Kantu batek ez badu nola edo hala eragiten...

#### **Eta disko honetan zer bizipenetatik abiatu zara?**

Bizitzaz oro har, konfliktuez. Nire barnetik abiatutakoak, hasteko. Baina badago gai bat nabarmen aipatzen dudana, edota metaforen atzean ageri dena, politikoa. Gure herriak garai batean hartutako norabidean urrun joan gara, benetan, herri menderatu bezala egon beharko genukeen posizioetik. Hori gure erantzukizuna da.

#### **Non kokatzen gara, bada?**

*Joko arauan* izeneko kantuan garbia naiz: *eraso txiki guztiak handien zatiak* besterik ez dira, *ezin horiei banaka aurre egin...* eta guk, euskaldunok, askotan eraso zatiez hitz egiten dugu. Erasotxikiak konpondu nahi ditugu, horien atzean

dagoen eraso handia kontuan hartu gabe. Inperialismo espainiarraren –edo frantziarraren– koordinada eta muga guztien barnean ari gara jokotzen, azken helburua balitz bezala, hori sinetsita edo.

Euskal abertzaletasunaren kolore bat edo beste, berdindu, biak txapelaren azpian daude borondatez, inperialismoaren joko arauetan gogotsu parte hartzen. Negar egiten, gainera. Ez dira ohartzen parte hartze horrek ez duela inperialismo hori legitimatu baizik egiten. Apurrak besterik ez ditugu jasoko horrela. Badira bizirauteko derrigor egin behar ditugun kontuak. Baina beste batzuk hautazkoak dira, hor jarri direnak demokrazia dagoela erakusteko, sinistarazteko, eta guk hainbat proposamen baliatu beharko genituzke muzin egiteko: demokrazia deituriko inperialismo hori hitzekin ez, baina ekintzekin ukatuko genuke horrela. Zeren guretzat, Euskal Herriarentzat, demokrazia hori diktadura da. Baina zeinen urrun dagoen herri hau jarrera honetatik...

#### **Herri menderatua baikara...**

Herri menperatuak ahulak eta ezjakinak dira politikoki. Eta ezjakintasun hori letala izan da herri honen historiarako. Hartu ditugu erabakiak iraganean, ikastolak sortu genituen, euskararen akademia eta abar. Baina, ohartu gabe, inperialismoaren eskutan umezurtz uzten genituela.

Baina, hala ere, nork esango zieten gure gurasoei legea horrenbeste gorai patuko genuela, legea gora eta legea behe- ibiliko zirela beren seme-alabak, berak legea urratuz egin zutenean egin zutena.

#### **Inperialismoaren koordinadetatik pentsatzeari utzi behar al diogu?**

Aldarrikatzen badugu herri hau euskaldunona dela, arazo nazionala dagoela, ez dugu bozkan jarri behar herri honen independentzia, ez dugu eztabaidan hasi behar herri honen independentzia nahi ez duenarekin. Norberak jakin behar

du norekin eseri eta norekin ez gauzez hitz egiteko.

**Orduan, erabakitze eskubidea eskatzeak, zuretzat, ez du ez hanka eta ez buru.**

Erabakiak hartu egiten dira. Zer da erabakitze eskubidea? Erabaki, zer? Zergatik ez da, gutxienez, esaten askatasun eskubidea? Eta horren haritik, nik ez diot askatasun eskubidea eskatu behar mendean hartu nauenari, ez da logikoa. Eskatzeak berak suposatuko luke berak nire askatasunarekiko zilegitasun bat duela, eta hori azkena egin behar genukeena da.

Herri honek ikasi egin behar du ospakizun gutxiago egiten eta pixka bat pentsatzen, zuzen hitz egiten, ez zabaldu den klabeetan. Ondoren, gauzak argi ikusten badira, aurrera egin; bestela, inondik ere ez. Askotan galdetzen da: zer egin? Eta guk esaten dugu: lehenik gaizki egiteari utzi, hori ezin bestekoa da.

**Ez atzera eta ez aurrera gaudela kritikatzan dute askok, Katalunia pausoka-pausoka aurrera doan bitartean...**

Gutxienez lortu dute munduaren aurrean agertzea. Gu duela urte batzuk Europako zerrendako independizatzeko moduko hurrengo herria ginen. Orain ez gaude zerrendan. Bavaria gure aurretik dago.

Hala ere, Katalunian ere badira kritikoak hor agertzen diren buruzagiekin. Lopez Tenaren artikuluak irakurri besterik ez dago.

**Egoera horrek guztiak eragina du euskal kulturari?**

Politikak guztian ere egiten du. Politika ere kultura da. Gure politika-kultura negargarria da, eta egoera horretan gehiegi ari gara irauten. Guztiz abandonatuta daukagu. Gero eta ez jakinagoak gara, horretan datza azkenean menderakuntza, herri menperatua ahalik eta ezjakinena izatean. Zapalduak eta ezereztatuak gara gure baimenarekin. Sinestarazi nahi digute aurrera pausoak eman daitezkeela, adibidez, hizkuntzan, baina hori ezinezkoa da egoera honetan.

**Orduan, zer pentsatzen duzu euskaldunak izan eta euskaraz kantatzen ez duten taldeez?**

Nik garbi daukat nire ildoak zein den. Besteen erabakietan ez naiz sartuko. Herri honek konplexua dauka, hain menperatutakoa denez... Dena den, horiek baino kezkarriagoak dira bestelako jarrerak. Euskararen alde baino euskarak behar duen hauspoa emango liokeen estatu bat nahi ez dutenena. Horiek azkenaldian perretxikoak bezala ugaritu dira eta arriskutsuak bilakatu dira, nahastu egiten dutelako.

**Euskaraz kantatuko bagenu, transmisiorako zubi lan hori egin dezake musikak...**

Hala izan behar luke, baina horrela al da? Irratian ere dial guztian dagoena ikusita, argia da inperialismoak moldeatu egiten gaituelako. Baina euskaraz ere egin daiteke Euskal Herrian eta euskararen aurkako kultura.

**Zure sorkuntza noiz itzaliko dela uste duzu? Ikusten al diozu amaiera datarik?**

Ez dut horretan pentsatzen. Askotan iraganari eta etorkizunari begira bizi gara, momentua bizitzeari uzteraino. Orain eskuartean disko berria daukat eta zuzenekoekin hasteko gogoz nago.



## KONTZERTUZ KONTZERTU, DISKOA AURKEZTU

**B**akarlari gisa egiten duen bosgarren diskoa da *Ur goiena, ur barrena*. Azken lan honek badu berezitasun bat, taularatu egingo duela.

Bost laguneko taldea osatu dute, proiektu honetan bide-lagun baititu Julen Alonso oriotarra, Ander eta Joanes Ederra anaiak, eta David Gorospe. Ederra anaiak aitaren-gatik ezagutzen ditu Zugastik, Fernando Ederrak orain arte kaleratu dituen diskoetan parte hartu baitu, eta, horrez gain, Benitoren ere aritu izan baita. Gorospe aurretik ezagutzen zuten, beren grabazioak utzi baitzizkien eta iaz Gure Bazterrak jaialdiaren aurkezpen kontzertuan ere izan baitziren. Eta Alonso haurra zenetik ezagutzen du Zugastik, Ikastolako Olaxka taldetik, alegia.

Zugastiren ustetan dohain handiko musikaria da Alonso. Akordeoia jotzeaz gain, teklek ere bera aritzen da, kapaza baita teklatuarekin kantuei kolorea emateko.

Lau musikari horiez inguratuta igoko da oholtzara. Lehen kontzertua azaroaren 21ean eskainiko du Billboko Campos Eliseos antzokian. Hiriburu batetik bestera joango da, Donostiako Victoria Eugenia izango baita azaroaren 29an. Abenduaren 6an Durangoko Azokako Platerue-nan egongo da, 11n Baionako Herri Antzokian eta 17an Hernanin, Biteri Kultur Etxean. Sarrerak Kutxabanken erosi daitezke, Baionako kontzertuan salbu, bertako turismo bulegoan edo telefonoz deituta erosi ahal izango baitira.



# Bina, berdintasuna ala berdinketa?



Eneko Balerdi

**B**ina. Berdintasuna ala berdinketa? Bina berdin du Oiartzunek Realaren aurka. Ados esango luke Euzkitzek. Emakumezkoen futbolaz entzun ditut berriak: berdintasuna omen da nagusi emakumezkoen futbolean. Gizonezkoen futbolaren inguruko ondoen entzun dut berria, kirolen atalean. Gainerako ataletan, ez da emakumezkoen politika edo gizonezkoen ekonomia bezalako terminorik erabili. Etiketek identifikazioa errazteko helburua dute, baina badut susmoa zenbaitentzat etiketa horiekin identifikatzea ez ote den erraza.

**“Genero-itsu gisa izendatuak dira: itsu, ez ikusten ez dutelako, begiratzeari uko egiten diotelako”**

Bana, emakumezko eta gizonezko, alderdi politiko-en zerrendak kremailean osatzean: berdintasuna omen da. Seina neska-mutil *Gu ta gutarrak* telebista saioan: berdintasuna omen da.

Nahi adina sexu aukera izango bagenitu! Ez ditugu, ordea, ez gaitezen engaina. Gizonezko ala emakumezko, zein, ar ala eme, ereduak zurrunik dira. -zerez+ko atzizkiak adierazten digu zein jeneroz egina den pertsona hori. Zein jenero. Eta, zein genero? Dikotomia horren bitartez aztertzen dira zientzian, bai sexua eta baita generoa ere. Dikotomia horretatik ihesi edo dikotomia horri aurre egiten dioten pertsonak Gender-Blind – Genero-Itsu – gisa izendatuak dira: itsu, ez ikusten ez dutelako, begiratzeari uko egiten diotelako baizik. Ados al gaude? Ala, itsu gaude? Ados? Itsu gaude, ala?



Aitor Arregi

**B**a egia esan, adiskidea, batzuk itsu, beste batzuk begiak estalita eta gehiengo beste norabait begira gaudelakoan nago. Soka luze eta astunari heldu ote diozun susmoa daukat, lagundu nahi nizun baina ez dakit indarririk izango dudanez edo pisu bihurtuko ote naizen zure ekinean.

Ulertu, inoiz nire baitan edo nire inguruan, inork ez du *genero*arena, pentsarazteko edo eztabaidagai bihurtuko.

Atzera begiratuta: txikitari, dena ikusteko ahalmena dugunean, inork ez zidan begiratu beharreko hura

**“Egoki eta zintzoaren planta hartzen du hartara gizar-teak, beste zerbaiti begira jarritz”**

erakutsi, nerabetan, hormonak bor-borka, itsu egon nintzen, aldameneko *jeneroari* begira, eta gaur; ustez, gizon heldua izatera iritsi naizenean, hara non konturatu naizen, miopea naizela.

Atzoko haurrek eta gaurko helduek, triste, onartu beharko dugu, ez dugula batere *bista* onik izan; aldiz, gaurko haurrak, bideratuta noski, ikusmen zabalago bat lortuko dute.

Argi ikusten dudana, eta zurekin guztiz ados nago, ustezko edo derrigortutako *berdintasuna* da, begian zakarrak baino nazka handiagoa ematen dit. Egoki eta zintzoaren planta hartzen du hartara gizar-teak, beste zerbaiti begira jarritz.

Gaurtik aurrera beste begirada batez beiratuko diot generoari, eta *jenerua, garaian garaikua, jenerua, freskua!*



## Herritarrak modelo lanetan

Aurreko urteetako arrakasta ikusita, hirugarren aldiz Fashion Week astea antolatzea erabaki zuen Arkupe elkarteak. Urriaren 18an, igandean, hasi zen Orioko moda astea eta, beste behin, herritarrak izan ziren protagonista nagusiak. Desfileak, ekimeneko hitzordu garrantzitsuenak, eman zion hasiera eta aste osoan deskontuez eta eskaintzez gozatu ahal izan zuten oriotarrek.



## Hamabi denda, mila eskaintza

Lamia Lentzeriak, Rose's, Ardatza, Anarri Opariak, Rosana Argazkilaritza, Orio Optika, Itziar Kirolak, Ttipi-Ttapa, Kaioa, Orio's Shop, Ramiro Argazkiak eta Noah's Secret. Hamabi izan dira aurtengo desfilean parte hartu duten herriko dendak. Orion dagoen eskaintza zabala ezagutu ahal izan zuten herritarrek desfileari esker.



# Itsasoa urrun denean



Eli Huegun

**Egia esanda, etxetik kanpo daramadan hilabete eskas honetan, agian, bizitako nahigabeak goxatuko zizkidakeen itsasoak.**

**A**utobuseko leihotik itsasoa ikusten dudanean badakit etxean naizela.

Hala esaten zidan lagun batek, astea kanpoan igaro ostean ostiralean bueltako bidea hartzen zuenean. Gehiegikeria hutsa zela pentsatzen nuen, maleta hartu eta geltokira abiatzen nintzenez iruditzen baitzitzaidan niri hasten zela asteburua.

Orain, iritzi aldatu dut. Edo iritzia bere kabuz aldatu zaidala konturatu naiz. Kostaldetik hain urrun egonda, etxean izan nintzen lehen eta azken aldia, egunero itsasertzera hurbildu nintzen, nire borondatez edo nire inkontzientek hala erabakita izan zen jakin gabe. Kalera atera nintzen gutzietan itsasoaren aurrean amaitu nuen, horretarako asmo jakinik izan gabe.

Itsasoak dena goxatzen du, tenperatura bereziki. Etxetik hiru gradurekin atera eta eguerdian 25 °C egotera zail zait ohitzen. Jendearen izaera ere goxatzen du, eta atseginagoak garela esatera ausartuko naiz. Hemengo lagun batek itsasotik urrun bizi direnengatik pena sentitzen duela esaten du. Ez du arrazoi bat ematen asmatzen, baina aurpegiaren antze-

maten diot benetan hala sentitzen duela.

Egia esanda, etxetik kanpo daramadan hilabete eskas honetan, agian, bizitako nahigabeak goxatuko zizkidakeen itsasoak: Arantza Quirogaren dimisioaren arrazoa, Realaren porrotak, arrastaka naraman orkatila hau, edota, bidean ahaztu ditudan gainerako guztiak.

Bainuontzia urez bete eta kaioen kantu hotsak jartzeko esan didate. Kresal usaina honaino nola ekarriko dudan galdetzen diet nik. Badira imajinazioak bete ezin ditzakeen hutsuneak, eta horietako bat da itsasoarena. Suposatzen dut falta zaizun arte, ordura arte izan duzula ohartzen ez zaren altxor horietako bat dela. Musika aparailua Gatiburen Biarritz abesten hasi zait, nire egoera animikoaren jakitun edo. *Itsasoari begire...*

Transzendentalegi jartzen ari naizela pentsa zenezakete, baina itsasorik gabeko lekuetan bizitzen ikasi egin behar da. Ikaste prozesua zail gertatzen den egun horietako bat dut gaurkoa. Egundak ez dira berdin, eta bizitza egunero hasten delako idazteari utziko diot, nire buruari trauma eragin aurretik. Itsasoaren faltan, *moila bazterretik* erriora begira.



**J. MAIZA AROZTEGIA  
LEIHO ISOLATZAILEAK  
(PVC)**

- \* INSTALAZIO OSOA
- \* OSZILOBATIENTEA
- \* ALUMINIOZKO PERTSIANA
- \* BARRUKO ETA KANPOKO BUKAERA
- \* BEIRA BIKOITZA ETA ISOLATZAILEA 4-16-4



420€



530€



630€

**TEL. 690 99 39 32**

**943 30 07 88**

[www.carpinteriamaiza.com](http://www.carpinteriamaiza.com)

[info@carpinteriamaiza.com](mailto:info@carpinteriamaiza.com)

**ALUMINIOAN ERE  
AURREKONTUA  
KONPROMISORIK GABE**



Libe Garmendia

## Iragarkiak: obesitatearen eragile

**Telebistan agertzen diren janari iragar-  
kien erdiak baino gehiago elikagai ez  
osasuntsuen taldekoak dira. Gainera,  
horrelako iragarki gehien haurren or-  
dutegian izaten dira.**

**I**akina da gantz eta azukre asko duten elikagaiak ez direla osasuntsuak. Baina, zergatik ez dira elikagai hauen iragarkiak debekatzen? Telebistan agertzen diren janari iragarkien erdiak baino gehiago elikagai ez osasuntsuen taldekoak dira. Gainera, horrelako iragarki gehien haurren ordutegian izaten dira.

Elikagaien industriak zerbaitean asmatzen badu, publizitatean da; horrelako produktuak zoriontasunarekin lotzen dituzte iragarki erakargarriak eginez, eta pertsonai edo maskota ezagunak erabiliz. Ondorioz, kontsumitzailea produktu horiek lehenetsi eta erostera eramaten du. Ez gara ohartzen horrelako iragarkiek zenbatetaraino eragiten duten gure erosteko eta jateko moduan.

Eta gurengan eragina badu, haurrengan are eta gehiago. Hainbat ikerketen arabera, haurrek obesitatea izateko arrazoi nagusietako bat mota honetako elikagaien iragarkiak dira. Hiru haurretatik batek obesitatea izatea ekidindu luke horrelako publizitatea ikusiko ez balu.

Gantz eta azukretan aberatsak diren elikagaiak gure osasunerako hain kaltegarriak badira, obesitate kasuak gutxitzen laguntzeko, horrelako elikagaiak iragartzea debekatu beharko litzateke.

Tabakoaren inguruko iragarkiak debekatu zirenetik, erretzaile kopurua nabarmen jaitsi da, batez ere, gazteen artean. Tabakoaren legean oinarritu beharko lirateke agintariak eta bide beretik abiatu. 80. hamarkadatik obesitate kopurua bikoiztu egin da eta aurreikuspenak oso kezkarriak dira. Hoberena horrelako jakiak debekatzea izango litzateke. Baina elikagaien industriak pisu handia duenez, iragarkiak debekatzetik hastea ez legoke gaizki.

Bitartean, gomendio bat; hurrei ez utzi telebista gehiegi ikusten. Mugimendu eta jolasean pasako dute denbora gehiago eta horrelako iragarkiak gutxiago ikusiko dituzte.

**BELOKI AUTOMOZIOA**

**TEL. 606 06 38 60**

Aukeratutako ibilgailuak

Km.0-koak

3-4 urtekoak

Merkeak

Ibai Ondo, 3. beheza ORIO



BODEGAS



ZUDUGARAI



Gabriel Tejada

TEL. 945 03 03 00

Fax 945 03 03 00

www.zudugarai.com

**Carmen eta Txomin**  
ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47

**IGLESIAS**  
**SARRILAGILEAK**



Javier Iglesias Fernández  
637 723 308  
iglesias@sarrilagileak.es  
ROBIO ORIO

- ATERRAK IRONKITEREN DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDARAKETA
- ATERRAK IKTERKO MALOKURRI ALDARAKETA
- KOMUNITATEBERRITZAKO XERRITZUA

24 ORDUKO XERRITZUA

**Izarra Bideoa**



275 € PANASONIC 32" %60 berriz bete eta AURREZTU!!!

39.990 € BOSCH 600W

49.990 € BOSCH 2800W

249 € BEKO 6kg - 1000r/min

TIEN 21 Eusko gudari, 44 • 943 833 881 TIEN 21

PIZZERIA  
KALETA



ARRAUNTZALE KALEA, 10  
TELEFONOA: 943 24 89 46

943 831048  
610 697 668



www.fotoramiro.com


**KAIUA**



TUPI-TUPA, TUPI-TUPA, KAIUARA  
BOKATA EDERRAK JATERA

Antzoko portua 35, berriz  
71. 943 646 080

**Katu Horia**  
Bilaberriz eta irrika



ESTROPALARI, 10  
20810 ORIO

Larrialdia: 668 89 11 29  
Tel. 943 11 66 99

www.katuhoria.com

Imanol Illarramendi  
Aia (Gipuzkoa)



**KORTABERRI**  
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47

**LEUNDA**  
**OKINGEDIA**



**ORDUTEGIA**

XTELEKOHETIK - LARUNBATERA 7:00 - 20:30  
IGANDE ETA JAIEGUMETAN 7:00 - 13:30

Tel. 943 89.06.67

**libe**  
dietetika

elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 - ORIO 943 53 64 94 / 697 23 05 54



# “Paregabea da hazkuntza pertsonalerako”

## Esperientzia Eskolako kideak

Bizipenetatik ikasitakoak dira, bizitzak ondo urratutakoak, eta ikasteko baino irakasteko gehiago dutenak dira. Esperientzia duten horiek elkartzen dira astelehenero, eguerdiko 14:30ean, Orioko Herri Ikastolako bigarren solairuan.

### OLATZARTOLA

Zaharrenak zortzi urte daramatza Esperientzia Eskolara joaten, baina atea irekita eta besoak zabal-zabalak dituzte animatzen den edonorentzat.

#### Askok pentsatuko dute: zahartutakoan eskolara?

Sekula eskolara joan ez garenok, edo ikasteko gaitasuna izan ez dugunok ere hori pentsatu genuen. Baina, zergatik ez? Gainera, aurreiritzi batzuekin etorri ginen hona, baina guztiak hautsi zitzaizkigun hemen. Zoragarria da hau, paregabea. Oso gustura etortzen gara.

#### Zer nolako eskolak izaten dituzue?

Denetik ikasten dugu: Euskal Herriko historia, musikaren historia, autoestimua... eskolak teorikoak eta praktikoak izaten dira, hausnarketa asko egiten dugu eta horrek gure barne gatazkak konpontzen eta ideiak antolatzen laguntzen digu. Hazkuntza pertsonalerako paregabea da.

#### Aberasgarria da orduan...

Guztiz. Batzuetan pentsatzen duzu ondo zaudela, baina hemen geure burua gehiago ezagutzen ikasi dugu, barrura begiratzen, eta barruan daukagun hori kanporatzen. Komunikatzen ere ikasi dugu. Guretat tabuak ziren gaiak mahai gainean jarri ditugu eta askatasun osoz hitz egin dugu horien inguruan. Iritzi askotariko jendea batzen gara, baina sekula ez diogu batak besteari iskin egiten, errespetatzen ere ikasi dugu. Pertsona moduan asko ireki gara.

#### Egunerokorako baliagarriak diren gauzak ikasi dituzue, beraz.

Bai. Bizitzari begiratzeko modua aldatu zaigu. Bakoitza den bezala baloratzeko balio izan digu, bakoitzari dagokion tokia zein den jakiteko: lehen postuan egoteagatik onena ez zarela jakiteko, baita azken postuan egoteagatik txarrena ez zarela ohartzeko ere. Guztiok dugu balioa.

#### Elkar ezagutzeko ere balio izan al dizue?

Bai, gure arteko aurreiritziak apurtzeko ere balio izan du. Ezagunak ginen, herrikoak garelako, baina ez genuen harreman esturik. Hemen elkar ezagutu dugu eta oso harreman ona egin dugu. Haurrak ezagutzeko aukera ere izan dugu. Berak guri egungo teknologiek zerikusia duten gauzak erakusten dizkigute, eta guk berei galtzear dauden kontuak. Zoragarriak dira berak, baita ekimena ere.

#### Haurren bisita ez ezik, profesionalen hitzaldiak ere izaten dituzue.

Maiz etortzen dira eta asko gustatzen zaizkigu. Berak garapen pertsonal handia dute eta beren esperientzia eta jakintza partekatzen dute gurekin.

#### Orduan merezi izan du izena emateak, ezta?

Dudarik gabe. Askok ez dakite hau dagoenik ere, eta dakiten askok ez dakite zer egiten dugun. Gauza positibo ugari ematen dizkigu Esperientzia Eskolak, izugarrizko esperientzia da eta edonor animatuko genuke hona etortzera. Merezi du.

Aurrerantzean Esperientzia Eskola kudeatzen duen Mugabe Elkarteak ERAK enpresaren parte izango da. Enpresaren helburua pertsonen ongizatea bermatzea izango da, gertutasunetik. Ez soilik helduei, baita haurrei ere.

# Udal gobernuaren lehendabiziko 100 egunak



Joxe Anjel Zaldua alkate izendatu zen momentua. KARKARA

Maiatzaren 24a orainaren eta geroaren arteko muga marraztu zen eguna izan zen. Hautsontzietan botoa emateko eguna izan zen. Orioren etorkizuna, lau urteko epean, zein izan zen erabakiz.

EAJk irabazi zituen hauteskundeak eta hautetsietan gora egin zuen, bost zinegotzi izatetik udalbatzarrean sei izatera pasa zen. PSE-EEk azken legegaldian izan ez zuen eserlekua berreskuratu zuen. EH Bilduk datozen lau urtean ahots bat gutxiago izango du eta Orain plataformak, orain arte bezala, bi zinegotzi ditu.

Tarta honela banatuta, ekainaren 13an aldatu zen alkate-makila eskuz. Joxe Anjel Zaldua izendatu zen Orioko alkate, EAJko sei botoekin eta PSE-EEko zinegotziaren botoarekin, hau da, gehiengo absolutuaarekin.

Udal gobernu berria egun horretan bertan onartu zen. Eserlekuei izen eta abizenak jarrita, martxan hasteko garaia heldu zen.

## Lehen aldaketa, alkatearen soldata

Uztailaren 7an egin zuen udal gobernu berriak lehen udalbatzarra. Hautsak gehien harrotu zituen gaia alkatearen ordainsariarena izan zen. Alkateak kargua dedikazio eskusiboan betetzea eta urteko 60.378 euro gordin jasotzea proposatu zituen. Bestalde, Angel Del Hoyo eta Aitziber Campos zinegotziek %50eko dedikazio partziala izatea eta bakoitzak 30.189 euroko ordainsaria jasotzea ere mahai gainean jarri zuen. EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu ziren liberazioak eta ordainsariak, baita udalbatzarreko kideen erregimen ekonomikoak. Hilero talde politiko bakoitzak 350 euro jasoko ditu eta beste 100 euro zinegotzi bakoitzeko. Horrez gain, batzordeburuek 300 euro jasoko dituzte hileko eta gainontzeko zinegotziek 200.

## Sei batzorde eta batzordeburu

Bilkura berean adostu ziren sei batzor-

de informatzaileak. Ogasuna, pertsonala eta kalitatea; kultura, turismoa eta euskara; hirigintza, ingurumena eta gizarte ongizatea; obra, zerbitzuak eta hezkuntza; kirola eta gazteria; eta nekazaritza, arrantza, industria eta merkataritza. Joxe Anjel Zaldua, Lourdes Salsamendi, Angel del Hoyo, Aitziber Campos, Eugenio Cotado eta Eixabete Bello dira, hurrenez hurren, batzordeburuak.

## Uda osteko batzar lasaia

Udako oporren ostean, irailaren 29an, bigarren udalbatzarra egin zen. Normaltasunez joan zen plenoa. Orain talde politikoko batzordeetako titular eta ordezkokoak izendatu ziren, hiru kreditu aldaketa egin eta bi mozio onartu ziren. Mozioak onartzeko prozedura aldatzea eskatu zuen Miriam Urangak, eta zuzenean plenora eman ordezkogion batzorde informatzaileak lantzea proposatu zuen.



**EAJ****100 egun**

100 egun ez dira asko ideia orokor bat ateratzeko gauzak ondo edo gaizki egiten ari garen jakiteko. Baina egia dena da irudipen on bat daukagula.

Lehenbailehen lanean jarri gara herriko beharrak betetzeko. Aitzakiak jar genitzake hainbat sorpresa txar aurkitu baititugu, baina arazoak gainditzeko prest gaude eta horretarako, guretzat, lana gogor egitea da formula bakarra.

Aurreko legealdiko bi proiektu garrantzitsu ondo bukatzeko eta bideratzeko ahalmena izan dugu 100 egun hauetan. Alde batetik Ludoteka asten honetan irekiko ditu ateak Txurrunuskiren ardurapean, eta beste aldetik, Euskaltegia, oso harro gaude Euskaltegiak hartu duen martxarekin eta batez ere edozein oriotar gai izango delako bere kabuz joateko.

Orain arte bezala lanean jarraitu behar dugu gure proposamenak aurrera ateratzeko, beti ere, saiatzen beste taldeek informazio argiena izan dezaten.

**Orain****100, 101, 102..., horrelakoak hurrengo lau urteak?**

Legealdiko lehen 100 egunak hartu oi dira gobernu berriek dakartzaten modu eta aldarteei neurria hartzeko eta etorkizun hurbila iragartzeko. Berritasunak egon dira. Udalek dituzten eskumenak jakinak eta mugatuak direnez, Oriokoa ez da salbuespena, eta oraingoak aurreko gobernuak erabilitako hitzak hartu ditu batzordeak izendatzerakotan baina nobedade batekin: *kalitatea* hitza gehitu dio batzorde bati, aurreko gobernuan faltan sumatu balute bezala. Kalitatezkoak jarri dituzten soldatak eta talde politikoetarako diruak dira. Kalitate eskasa adierazten dutenak aldiz udaletxean hutsik dauden hiru lanpostuak betetzeko ahalegin gutxi eta oraindik kale garbiketaren kontratazio berria ez ateratzea, nahiz eta dirua aurrekontuetan egon. Kalitate eskasaren beste adibidea batzorde gutxi eta gai gutxiarekin izan ditugula da. Gobernuan daudenak 2011-2015 legealdian esandakoari kasu eginda, ia dena gaizki egiten zela alegia, gehiago eta mamitsuagoak izan beharko ziren.

**EH Bildu****Entzun arren**

Askotan entzun genituen EAJkoen kexak. Nabarmenena eta medioetan azpimarratu zigutena, kudeaketa txarra egin izana. Orion girorik ez egotea eta zikina dagoela ere esan ziguten. Ikusten da EAJk aurrekoarekin apurtzeko nahia. Ardurak eta liberazioak haien esku geratu dira, eta soldatak modu oparoan igo dituzte. Hori bai, EAJrentzat ukiezina zen altxortegiko dirua erabiltzeko proposamena egin zuten bigarren plenorako. Orion girorik ez izatea leporatu eta gero, aspaldiko udarik pobreena izan da. Bisiguaren Festan, gainera, aurrekoetan ez bezala, diru galera izan du Udalak. Garbitasunarena berdin dago. Legealdia bukatzean prest zen konponbidea. EAJk prozesua blokeatzea erabaki zuen. Denok adostutako neurrietako bat ezabatu dute gainera: udaletxeko balkoian birziklapen-tasa adierazten zuen panela. Hori guztiari Udalaren martxa motela gehitu behar zaio. Ia geldirik dago eta EAJk ez du iniziatibarik erakusten horri buelta emateko.

**PSE-EE****Ehun egun ikasten**

Ibilbide berri bat hastean, eginkizun berriaren funtzionamendua eta horrekin loturiko guztia ikasten saiatzen gara lehenbizi, lan ona egiteko asmoarekin. Hori horrela, lehen ehun egun hauek PSErentzat Orioko udala ezagutzeko beharrezko denbora izan dira; administrazio aldetik nola funtzionatzen duen jakiteko eta proiektuak aurrera ateratzeko eman behar diren pausoak ezagutzeko. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu udaleko teknikari eta langileei beren laguntza eta pazientziagatik. Udalaren lehen ehun egun hauetako kudeaketari dagokionez, udal euskaltegia martxan jartzea azpimarratu beharrekoa dela uste dugu. Proiektu hori aurrera eramatea posible izan da udal gobernu osatzen duten alderdien adostasunarengatik eta egindako lanagatik.

Oraindik gauza asko daude egiteko edo amaitzeko. Orioko PSEk espero du, orain arte bezala, adostasunean oinarrituta egingo dutela aurrera proiektu horiek.



*Lizaso*  
*dekorazioa*

Tf:  
943 83 07 84

Faxa:  
943 24 87 15

Eusko Gudari, 48



gizarte  
kutxa

# Euskarazko lehen filmaren peskizan



Gure Sorlekuaren Bila filmeko kartela. GURE SORLEKUAREN BILA

## Kritika Gure sorlekuaren bila

Filma, Zinemaldian estreinatuta zen Maialen Sarasuak egin du filmaren posprodukzioa.

**T**esi egileak pipiak jota daudela pentsatu izan dut beti, hauen abentura eta kontakizun xebreak entzunda. Josu Martinez euskal zinema dokumentalaren ikerlariak ere, euskaraz egindako lehen filmaren atzetik pasatako komeriak grabatu ditu film-dokumental pertsonal eta hunkigarri honetan. Desesperazio momentuetan, negarra beharrean barre eginez eta publikoari barrea eraginez, tarteka, bakarren bati entzun diot, *bilbaino* estiloko ironiarekin.

Onartu behar dut Maialenen –Sarasua– lan guztiak ikusteko ohitura dudalako joan naizela *Gure Sorlekuaren bila* ikustera. Filma ikusita, ikerlariaren grinarekin eta zorioneko momentuekin inbidia pasatzera iritsi naiz. Alegia, gaiak nigan arreta berezirik sortu ez arren, egileak emandako umore puntuak, seriotasun akademikotik at, une gozoak utzi dizkit, nire hegoaldeko betaurrekoetatik begiratuta begiak betetzearaino. 56. urtean Hazparden estreinatutako filmaren irudiak ikusita, ofizialki existitzen ez den herri baten zinemaren historiaz, egileak dioen moduan, *izan garenaz* ari delako.

OLATZ OLARIAGA

## URTEAN 36 EURO

18 DOZENA ARRAUTZ  
12 KILO PATATA  
950 GRAMO BIXIGU  
40 LITRO ESNE

KARKARAKO HARPIDETZA

HARPIDETU  
KARKARA 100/HARPIDETZA  
KARKARA@KARKARA.COM  
943338827

Urriko sarituak

**Dolores Aldaz Idarreta**

Optika Orio

**Tubal Lakuntza Uranga**

Xixario

# 30€

Arkupeko dendetan gastatzeko



## ■ LARDIZABAL HERRI ESKOLA

# Jone, gure praktiketako irakaslea



Aurten, Jone eta Ane zarauztarrak etorri dira gure eskolara praktikak egitera. Jone gure gelan ibiltzen da. Donostian ikasten dute LHko irakasleak izateko. Jonek esan digu asko ikasten ari dela gure eskolan, ondo etorri baitzaio teoriarik ikasitakoa praktikara eramatea. Oso interesgarriak iruditu zaizkio gure eskolan erabiltzen diren metodoak, ezagutzen duenarekiko ezberdinak direlako. Ederki pasatzen ari gara berarekin. Espero dugu bisitan etortzea!

## ■ ORIOKO HERRI IKASTOLA

# Arratsaldero esperimentatzen



Esperimentazio gelan era guztietako ikerlanak egiten ditugu: tenperarekin koadro koloretsuak, argi-ilunekin jolastu, lupekin gauzak ikusi... Astero, jarraia bat proposatzen digute eta arratsaldero ikerlari trebeak bihurtzen gara. Ezetz asmatu zertan ari garen argazkian? Ez gara okin bihurtu! Erreze-ta ikasi dugu, baina plastilinarekin ari gara! Hurrengo astean plastilina horrekin eskulturak egin behar omen ditugu... Desiratzen gaude!

## ■ ZARAGUETA HERRI ESKOLA

# Organoaren barru-barrutik



Artea eta artelanak lantzen ari direla aitzakia hartuta 5 eta 6. mailako ikasleak herriko organoa ikustera joan dira. Artelan paregabe hauek kanpoaldetik ikustea ohikoa izaten da, baina barrutik nola funtzionatzen duten ikustea ez horrenbeste. Ikasleek zorte handia izan dute organoaren barruan sartu baitira. Harriturik geratu dira bertan ikusitakoarekin, ez baitzuten espero barruko soka eta hodi saltsa horretatik horren musika ederra sortuko zenik.



Antton Iturain

# Emakumeak eta kirola

**K** irolarloan, emakumezkoak oraindik ez daude gizonezkoak dauden egoera berean; adibidez, soldata baxuagoak dituzte, jantzi sexyagoak...

Betidanik, gure baitan neskek panpinekin jolasten direla daukagu; baina, nire ustez, ez litzateke horrela izan beharko. Emakumeek ere eskubide osoa dute, nahi badute behintzat, mutilekin futboleak jokatzeke, askotan emakumeak baztertu egiten baititugu, txarrak direla pentsatzen dugulako; baina, oker gaude, askotan mutilak baino hobetoak dira.

Neskei ezartzen zaizkien mugak ere izugarriak dira; adibidez, emakumezkoek ezin dute 2.000 € baino gehiago irabazi, eta mutiletan edozein jokalarik profesionalak 1.000.000 € irabazten dute gutxienez. Beste adibide bat emango dizuet, 2010eko Munduko Saskibaloiko Txapelketan, Suediako nesken selekzioak hegaldia *klase normalean* egin zuen, eta mutilen selekzioak *lehen klasean*.

Badakizue zergatik? Mutilak profesionalak omen zirelako eta neskek ez.

Kirolariak eredu izaten dira askotan gazteontzat. Gure egunerokotasunean berdintasunaren baloreak landu nahi baditugu, asko erraztuko liguke idolotzat ditugun hainbat kirol edota kirolarik dituzten jarrerak maxizak alde batera uztea. Ezinbestekoa da kirolarekin lotuak dauden hainbat erakunde ere eredugarri izatea.



## Gizartea

### Bretainian egon ziren Zaharren Babeslekukoak

Bretainia, kondaira eta usadioen lurra dela diote. Hondartzak, itsabarrak, landak eta Erdi Aroko herrixkak, denetik dauka Frantziako ipar-mendebaldeko eskualde horrek. Hori guztia eta gehiago ezagutu zuten Zaharren babeslekukoek irailean bertara egin zuten bidaiari. Berrogeita zazpi lagun izan ziren lurralde magiko hartan, horietatik hogeita hamalau oriotarrak ziren.

Bidaiatik leku bat aukeratu behar izanez gero, Saint Michel izango zela dio Txominek, Babeslekuko presidentek. Izan ere, irlatxo batean dagoen herrixka da Bretoniako ikur nagusia.

@karkara.eus/orio/1446017465838



## HASI TXIOKA

### Txiokatu festibalean #GureBazterrak traola erabilia!



## Kirola

### 1936ko Estatu Batuetako ontziaren epopeia

Urriaren 2an *Remando como un solo hombre* liburua aurkeztu zuten Donostiako Garoa kultur laborategian. Daniel James Brownek zortzi arraunlarietara eta beren lemazainak Washingtongo Unibertsitatearekin bizitako epopeia kontatzen du. Taldeak Hitlerren Berlingo Joko Olinpikoetan, 1936 urtean, urrezko domina eskuratu zuten. Horretaz guztiaz hitz egiten duen liburuaren aurkezpenean izan zen Ibon Gaztañazpi oriotarra, Pello de la Vega arraunlariarekin batera. 450 orritan Estatu Batuetako taldeak Hitlerren aurrean bizitako sei minutu horiek biltzen ditu.

## Gizartea

### Hildako gorpua aurkitu zuten etxe batean

Hildako bat aurkitu zuten hilaren 8an, Orioko Aita Lertxundi kaleko etxebizitza batean. Gorpuak lau egun zeramatzan hilda. Bizilagunek usain txarra sumatzen zuten eta bizilagunaren familiak berarekin kontaktatzea lortzen ez zuenez, ertzaintzarekin jarri ziren kontaktuan. Ertzaintzak azaldu digu etxera joan eta han aurkitu zutela gorpua

## Politika

### Kartzela zigorra Aratz Madariagarentzat

Kukutza eraitsi zuten egunean atxilotu zituzten 19 lagun artean zegoen Aratz Madariaga oriotarra. Epaietan edukiontzia batetik bestera mugitzea eta harriak botatzea egotzi zioten. Guztiei bederatzihilabeteko espetxe zigorra ezarri die eta 84.000 euroko kalte-ordaina ordaindu beharko dute guztien artean. Gazteen abokatuek helegitea jarriko dutela jakinarazi dute.



Ander Atorrasagasti @AnderPoropo - ira. 30

Astelehen honetatik aurrera berri gehiago, bitartean jarraitu @enbaxadoreak kontua ;) #proiektua #dokumentala



1



Jabier Zabaleta @ja2er - urt. 6

Orion euskaldun zaharrak beharko ditugu Mintzalagunerako. Nik eman dut izena dagoeneko. Zabaldu dela eta animatu! bit.ly/1j3sxSW



2



Nadeth Agirrejek Bertsioa



Oiarzun Irratia @Oiarzunirratia - 17 ordu

@NadethAgirre-k argitu du #JamiPotorrueaErdin kasual Eskerririk asko gurekin izateagatik! #OEK oiartzunirratia.org/index.php?opti...



Jon Urbieta @jonurbieta - urt. 13

Jende ezaguna gaur #zuekhor-ren.

Aide batetik @jongarate1 eta bestetik @JulenXanxe. Eta pare bat zumaiar bertan.



## Kirola

### Oriok eskubaloia taldea du denboraldi honetan

Aurten, kanpora joan ordez herrian bertan eskubaloian jokatu ahal izango dute infantil neskek. Taldea osatu dute eta Orioko Ikastolaren izenean ari dira lehiatzen oriotarrak. Oraindik ez dute denboraldia hasi, asteburu honetan jokatuko baitute lehen partidua. Infantil nesketan hiru multzotan banatuko dira taldeak. Oriotarrak lehendabiziko multzoan izango dira, beste hamabi talderekin batera. Orioko taldea Gari Garagarzak eta Idoia Larrañagak entrenatuko dute.

@karkara.eus/orio/144472221770



## Kultura

### Aristerrazuko erromeriaren inguruko disko-liburua

Urriaren 25ean aurkeztu zuten *Aristerrazu, mandioko -azken-erromeria* disko-liburua. Trikitixa elkarteako Soinuaren liburutegia saileko 11. alea da, zehazki. Diskoan Aristerrazun grabatutako 28 pieza daude, inon publikatu gabeak. Hasieran Auspoarako egin behar zuen arren eta 2017 urtean kaleratu, prozesua azkartu eta Euskal Herriko Trikitixa Elkartearekin argitaratzea erabaki du Joxemari Iriondok. Jende asko joan zen aurkezpena, baita ondorengo bazkarira ere, 160 lagun bildu baitziren.

@karkara.eus/aia/1445874788073

## Bi oriotar aurrez aurre futbolean



@karkara.eus/orio/  
1445033018738




## Jokoa eta jolasa auzo egunean



@karkara.eus/aia/  
1444651896875



## Ludotekak atek ireki ditu urria amaieran



@karkara.eus/orio/  
1445931579223



**AZOKA**

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

**Salgai**

■ **Pisua salgai Aristerra-zu-Aian.** 70 metro karra-tu, ia berria. bi logela, komuna, egongela handia eta sukalde handia. Gara-jea eta trasteroa barne. 129.000 euro. Tf: 628 271 211

■ **Salarako altzaria, gere-ziondoaren egurrearekin egindako liburutegia.** Neurriak 221,5 x 243,5 x 37,5 dira. Prezioa negoziagarria da. Harremanetan jartzeko deitu 649289154 telefonora.

■ **Pisua salgai Abaromendi.** 61 metro karratu eta 140 metro karratuko jar-dina. Bi logela, komuna, sala eta sukaldea. Erabat hornitua. 637419729

**Lan eskaerak**

■ **Arratsaldetan lana egiteko prest, bereziki edadetuen zaintzan.** Emakumea, euskalduna eta oriotarra. 14 urteko esperientzia alor hone-tan. Mari: 664834388

■ **Asteburuetarako lan bila dagoen emakumea.** Esperientzia helduen zainketan, baina edo-zein lan egiteko prest. Paperak ere badituz. Tf: 663117579

■ **Gizonezkoa prest base-**

**rrian lan egiteko.** Espe-rientzia daukat. Jose Azur. Tf: 674 123 293

■ **Garbiketa lanak egiteko, zahar nahiz helduen zainketa eta etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume gaztea.** Tf: 636 188 388 -Mayerling-

■ **Lan bila dabilen emaku-me.** Sukaldari titulua daukat, eta esperientzia jangelan eta zerbitzari lanetan; baita haurren zain-tzan eta garbiketan. Intere-sa duenak 695 914 242 zenbakira deitu dezala.

■ **Lan bila nabil ume nahiz zaharrak zaintzen edo garbiketan -barne-koa edo kanpoko.** Intere-sa duenak deitu telefo-no honetara: 634 920 471 -Maria Jose-

■ **Esperientzia daukat heldu nahiz haurren zaintzan eta garbiketa lanetan.** Azkenengooz baserri batean egin dut lan, hiru urtez. Tf: 674123293 -Claudia Patricia Gimenez-

■ **Ikasketaz ingeniari me-kanikoa eta 30 urteko es-perientzia soldadore lanetan.** Gaztelera, Ukra-niera, Errusiara eta Polakoa hitz egiten dituz. Langilea naiz eta lan bila nabil. 674 946 663 edo

602 628 206 -Bohdan-

■ **Asteburuetako lan bila pertsona helduen zaintzan.** Paperak araututa eta erreferen-tziekin. 663117579

■ **Bertako emakumea lan bila.** Portal eta ofizinen garbiketan esperientzia, adinekoen zaintzan titulua. Tf: 617112916

**Alokairuan**

■ **Pisu dotorea alokagai Orio erdi erdian.** Bikote batentzat paregabea. 2 logela, sukalde-egongela eta komuna, 65 metro karratu inguru. Telefonoa: 665713857

■ **Goiko kalen pisua alokagai, 75 metro.** Guztiz berritua, hornitua, bista zoragarriekin eta oso argitsua. Hiru logela ditu, sukalde-sala eta komuna. 3. pisua aszentzore-rik gabe. Urritik aurrera alokagai, prezio onean. Miren 675 701 766

■ **Pisua alokagai epe luze-rako.** 3 logela eta komun bat 1.83 metro karratu, be-rritua eta estreinatzeko. Tf: 617 602 117 (Nekane)

■ **Logela alokagai -16 me-tro- etxebizitza berrian.** Komun propioa gelatik kanpo eta 40 metroko terraza. Tf: 652 551 550

**ITSASOA**

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	07:29 eta 20:01	01:10 eta 13:42	☾
02	08:23 eta 21:02	02:01 eta 14:39	☾
03	09:28 eta 22:16	02:59 eta 15:45	☾
04	10:45 eta 23:37	04:10 eta 17:01	☾
05	12:02 eta ____	05:27 eta 18:14	☾
06	00:46 eta 13:05	06:37 eta 19:12	☾
07	01:38 eta 13:53	07:30 eta 19:57	☾
08	02:19 eta 14:33	08:14 eta 20:34	☾
09	02:55 eta 15:08	08:51 eta 21:09	☾
10	03:27 eta 15:41	09:26 eta 21:42	☾
11	03:59 eta 16:14	10:00 eta 22:15	☾
12	04:30 eta 16:46	10:34 eta 22:48	☾
13	05:02 eta 17:19	11:08 eta 23:22	☾
14	05:34 eta 17:53	11:43 eta 23:57	☾
15	06:09 eta 18:30	12:21 eta ____	☾
16	06:48 eta 19:13	00:36 eta 13:04	☾
17	07:32 eta 20:04	01:19 eta 13:53	☾
18	08:28 eta 21:07	02:11 eta 14:52	☾
19	09:36 eta 22:24	03:14 eta 16:01	☾
20	10:54 eta 23:42	04:28 eta 17:16	☾
21	12:10 eta ____	05:43 eta 18:25	☾
22	00:50 eta 13:15	06:50 eta 19:25	☾
23	01:48 eta 14:11	07:49 eta 20:18	☾
24	02:40 eta 15:02	08:42 eta 21:07	☾
25	03:27 eta 15:50	09:31 eta 21:53	☾
26	04:12 eta 16:30	10:17 eta 22:37	☾
27	04:56 eta 17:20	11:03 eta 23:20	☾
28	05:40 eta 18:05	11:48 eta ____	☾
29	06:23 eta 18:50	00:04 eta 12:33	☾
30	07:08 eta 19:36	00:48 eta 13:20	☾

**ZAINTZAKO BOTIKAK**

**AZAROA**

- 1ean, Etxeberria.
- 2an, Lasa.
- 3an, Iriarte.
- 4an, Larrañaga.
- 5ean, Azaldegi.
- 6an, Etxeberria.
- 7an eta 8an, G. Artiñano.
- 9an, Iriarte.
- 10ean, Larrañaga.
- 11an, Lasa.
- 12an, Etxeberria.
- 13an, G. Artiñano.
- 14an eta 15ean, Azaldegi.
- 16an, Larrañaga.
- 17an, Iriarte.
- 18an, Etxeberria.
- 19an, G. Artiñano.
- 20an, Lasa.
- 21ean eta 22an, Zulaika.
- 23tik 27ra, Lasa.
- 28 eta 29an, Mutiozabal.
- 30ean, Etxeberria.

- **Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- **G. Artiñano:** Zigorria kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz



**Galerna**  
JATETXEA

Antillako Hondartza 5  
20810-Orio-Tel.: 943 89 04 16

75 m<sup>2</sup>ko **PISUA SALGAI**  
Aian, Santio Errekan kokatua

Prezioa: 165.000 euro  
☎ 607 510 356




Hiru logela ditu, sukalde handia, egongela eta bainugela. Horrez gain, komunitate-lestrategia eta kanpoko apartaleku pribatua.



## Itsas ondarea ezagutzen

lazkoen arrakasta ikusita, itsas ondarea ezagutzera emateko doako hitzaldi ibiltariak antolatu dituzte Urola Kostako turismo bulegoek. Azaroan zehar egingo dituzte hitzaldi horiek, igandeetan Orion, Zarautzen, Getarian, Zumaian eta Aian. Xabier Alberdi, itsas historian aditua, izango da hizlaria.

## Orio

### Musika

- Azaroaren 13an, Fernando Gonzalo organo-jotzailearen eta Jose Jabier Etxeberria tenorearen kontzertua, 20:00etan San Nikolas elizan.
- Azaroaren 18an, Santa Zeziliako kontzertua, Kultur Etxean, Danbolin Musika Eskolako ikasleen eskutik.
- Azaroaren 20an, Mikel Urdangarinen kontzertu akustikoa, 22:30ean, Kultur Etxean. Sarrerak 5 eurotan salgai.
- Azaroaren 28an, Gure Bazterrak musika festibala, 19:30ean, Karela kiroldegian. Sarrera: aurrez 10€, bertan 12€.

### Hitzaldiak

- Azaroaren 1ean, hitzaldi ibiltaria, 11:00etan. Irteera Udaletxe aurretik. Itsas-hiribildu baten ezaugarriak ezagutzeko hitzaldia.

### Zinea

Azaroaren 13an, Difret filmaren proiektzioa, 22:30ean, Kultur Etxean.

### Bingoa

■ Asteazkenero bingoa, Kultur Etxean, 16:00etatik aurrera. Azaroaren 18an ez da bingoarik egongo.

### Mandalara

- Azaroaren 6an, Erregresioaren eta aurreko bizitzaren inguruko hitzaldia, 19:00etan, Kultur Etxean.
- Azaroaren 7an eta 8an, Erregresioaren eta aurreko bizitzaren inguruko tailerra, 10:00etan, Mandalara taldearen lokalean.
- Azaroaren 14an eta 15ean, eta abenduaren 12an eta 13an, Intuizio eta energiaren inguruko ikastaroa.

### Bertako hazien banaketa

- Azaroaren 8an, hazien banaketa, 11:00etatik 14:00etara, herriko plazan.

## Aia

### Kintopeko Idi Probak

- Urriaren 30ean Nerea Telleria, Iñaki Oliden eta Egoitz Armaolea, 22:00ean, probalekuan.
- Urriaren 31n Usaisti, Bixkiak eta Iratzeta, 22:00ean, probalekuan.
- Azaroaren 2an, Andrakas, Olatzar eta Txauson, 22:00ean, Probalekuan.

### Erromeria

- Azaroaren 1ean, erromeria Laja eta Larrañagaren eskutik, 18:30ean, Aristerrazun. Ondorengo 29an izango da.

### Hitzaldiak

- Azaroaren 29an, hitzaldi ibiltaria, 11:00etan, Ubegun industriaguneko sarreratik autobusa hartu eta Laurgainen hasita. Gure itsas paisaia zaharra ezagutzeko hitzaldia.

**URRIAK 21 - AZAROAK 8**  
**Nafar hegoaldeko uzta**  
**euskarari puzka**  
**HARTU ETA EMAN**

SASKIA EUSKARAREN TRUKA  
AIZOLANARI ESKEN

NAFARRA HEGOALDEKO  
EUSKALGINTZARI 423



**ESKATU SASKIA**  
**KARKARAN**



[karkara@karkara.com](mailto:karkara@karkara.com)

943 83 15 27

**15 EKOIZLE**

EBRON - MARIA JESUS - BARDEA  
ITURRI - PEDROLUS - EL ESCOLAR  
LA CASA DEL ACEITE - LA CHURTA  
BROLD - EL ROSARIO - ALMANIQUE  
LEZAIN - MENDIO - AZMA - MELITA

  
**ERRIGORA**  
W W W . e u s k . e u

**3 PROIEKTU**

EDOCISA ETA VINAKO KASTOLEN  
BIZIRAUPENA - ERRIBERAKO  
A.E.K. - D'EEBQUA NATARRA  
OCORANA ZASALTZEROKO ERMEAK